

GOIERRITARRA

2.500 aleko tirada

124 p.k. Ordizia —Goierriko euskaldunon aldizkaria— dohain banatzen da

GOIERRITARRA HILABETEKARIA.

24. zenbakia.

92ko Maiatza



Lehengo/Oraingo morroiak

- ◆ —**ELKARRIZKETAK:**
ESKUALDEA EUSKALDUNTZEN: GOIERRIKO GOIZTIRI- AEK EUSKALTEGIETAKOEI. MIKEL MENDIZABAL BERTSOLARI ITSASONDOARRARI. PASKUAL LARRAÑAGA TXISTULARI ETA MUSIKO ORMAIZTEGIARRARI OMENALDI. JOSETXO IMAZ KORRIKALARI BEASAINDARRAREKIN.
- ◆ —**ERREPORTAIK:**
GASTATU ZIREN ETA BANAKA GERATUKO DIREN AZKEN MORROIK. ARAMAKO IBARESKO ERROTA, BERRIRO MARTXAN. IDIAZABALGO PILOTARI ESKOLA OSPETSUA.
- ◆ —**OHIZKO SAILAK, BERRIAK, ETA ABAR.**

— PERIODIKOAK —

JASOTZEKO ETA GARRAIATZEKO MAKINERIA ELEKTRIKOA

- Garabi zubidunak, portale-garabiak eta erdiportale-garabiak.
- Polipasto elektrikoak.
- Mantenu automatiko osoa.



ERAIKUNTZAK O. E.

Senpere Auzoa, z/g.
Telefona (943) 88 15 57
LAZKAO (Gipuzkoa)

merka P21 dendak



ASEGURU AGENTZIA
CARLOS RODRIGUEZ
CARDESIN

Goierrri, 12- Tfnoa: 16 14 15
P-21 Komertzialgunea, 2. oina

ORDIZIA



TXALUPA
ERRETEGIA

Arrain, marisko eta okelak parrilan

P-21 ZENTRU KOMERTZIALA Tfnoa: 88 84 07 ORDIZIA

IBAÑEZ

- ✓ Kafetegia
- ✓ Izozkitegia
- ✓ Gozotegia

C/Goiherri. Poligono 21-2º
ORDIZIA



- Telf. 16 12 59

Eraikuntzak
P. ARMENDARIZ

Filipinas, 13
ORDIZIA

Tfnoa: 88 49 50



BRICORDIZIA

- BRIKOLAJEA
- ENMARKAKETA
- Eta zure ideiak ...

Goierrri, 21 TEL. 160416 ORDIZIA



P - 21
Kafetegia

- Sandwitx eta gosari apartak

Goierrri Kalea, 21.
Zentru Komertziala.

ORDIZIA

GOIERRITARRA HILABETEKARIA

Goierrialdeko Aldizkaria

24. zenbakia. 92.eko Maiatza.

Debaldeko alea. Tirada: 2.500 ale.
1.900 harpidedun.

Argitaratzailea: "Goierritarrak Kultur Elkartea. Dorre- etxea, behea (Correos azpia). Tfna: 889612. 124 posta kutxa. Ordizia.

Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren diru- laguntza jaso du. Era berean, Goierriko Udal askoren dirulaguntza jaso izan du joandako bi urtetan eta aurrera goazen kurtso honetarako laguntzen zain gaude (oraindik!).

Dirulaguntzaren bat eman digute: Itsasondo, Idiazabal, Zerain, Arama, Alzaga eta Lazkaoko Udalek.

Dirulaguntzak agindu dizkigute: (Hitzarmenen bat sinatzekotan gara). Zaldibia, Beasain, Ordizia, Olaberria eta beste zenbait Udalek, Gipuzkoako Foru Aldundiak.

Koordinatzailea: Jon Mikel Arano.

Publizitate arduraduna eta laguntzailea: Mikel Albisu.

Erredakzio Batzordea: Tere Irastortza, Andoni Sarriegi, Jon Arano, Mikel Albisu, Jon Imanol Iturrioz, Edurne Garmendia, Patxi Zubizarreta, Ane Martin, Loinaz Agirre, Nekane Altuna eta Rosa Amundarain.

Kolaboratzaileak: Jexux Lete "Ibailertza", Marijoxe Madariaga, Joseba Telleria, "Maizpi", Xabier Gartzia, Kexexo, Koro Ruiz, "Txurrupe", Esteban Otegi, Jon Aldanondo, Jon Belarra, Dionisio Amundarain, Felix Lardizabal, Xabier Armendaritz, Ramon Ugaldé, e.a.

Azala: Gure eskerronak: Gure "sponsorrei": publizitatea ematen diguten guztiei. Idiazabalgo AMPO S. Coop. Kooperatibari bere dirulaguntzagatik. Goierriko Udal-ordezkarientaldeari, "Zure-Argazki" eta "Fotoetxe"eri, "Egunkaria", Lankide Aurrezki, "Argia"ri. Era batera edo bestera

lagundu nahi liguketenei, gauzak errazten dizkiguzuenoi eta nola edo hala parte hartu nahi duzuenoi.



Zein da aldizkari irakurriena Goierriin? Zure publizitatea 2.500 txokotara iristea nahi baduzu, dei egiguzu. Izena emango dizu GOIERRITARRA iragartzeak, aldizkari bat baino gehiago baita honakoa. Dei 889612 telefonora.


Fotokonposaketa, maketazioa eta inprimaketa: GERTU KOOP E. (Zubillaga. Oñati)

Lege Gordailua: SS-926/89

GOIERRITARRA aldizkariak ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

"Goierritarrak" Kultur Elkartea

ZURE IRAGARKIA HEMENTXE
BALEGO, ZEU IZANGO ZINATEKE
DUEN ERAGINA IKUSTEN



88 96 12



GOIERRITARRA Etxean jaso nahi dut
NIK ERE HARPIDEDUN IZAN NAHI DUT

Izen-Deiturak:

Helbidea:

Herria Tlf.

Ordiziako 124 Posta Kutxara bidali.

DOHAIN GOIERRIKO ZENBAIT UDALEI ESKER



HITZ ETENA

E u s t a k i o
Mendizabal
T X I K I A ren
bertso eta
o l e r k i a k

Jon Aranok
apailatutako edizioa

maiatzean kaleratuko du
SUSA argitaldariak

Industrialdea, 1- 2. 200160 Lasarte-Oria. Tel. 37 07 38



GERTU INPRIMATEGIA

Badugu zeresanik aldizkarigintzan

Zubillaga Industrialdea, 9. 20560 OÑATI (Gipuzkoa) Tfnoa. (943) 78 33 09

Lana

✓ **Neska gazte eta euskaldun** batek gizonezkoen lanak ere egingo lituzke. Bulego-garbiketan, enpapelatzen, taberna-jatetxeetan... Edozein gauza, etxeko-lanak ezik. 801065, Edurne.

✓ **Neska euskaldun bat edozein** lanetarako prest. Sukaldean aritua eta esperientziaduna. Lidia, 722098 tfnoa (Urretxu).

✓ **Emakume batek orduka** internagisara lana egingo luke. Zaharren batzaituko nuke. 888795ra dei interesatuok.

✓ **"Otsaila" itzulpen zerbitzua.** Edozein motatako testuak itzultzen ditugu. Lau hizkuntzatan ari gara eta enpresa, denda, eskola, instituzio publiko nahiz pribatuei itzulpen lan zerbitzu egokia eskaintzea da gure helburua. Urdaneta, 18. Tlf: 889325. 20240 Ordizia.

Salmentak

✓ **Japoniar berogailua salgai.** Berria, garantiarekin oraindik. 70 m. inguru berotzen du. Merkea kontsumoan. Dei arratsalde: 467395.

✓ **Baserriko tankerako egurrezko mahaia** (200x80 zm.) eta 120 bajutako akordeoia (ia berria) salgai. Merke. Tfna.: 889598.

✓ **Neska gazte batentzako apropos**a den larruzko kazadora beltza salgai. 880048ra dei goizez. Maialen.

Etxebizitzak

✓ **Etxebizitza salgai Ordiziako** Urdaneta kalean: 97 m2. bi bainu-gela, gela guztiak egutera aldera, ia guztiz jantzia, ganbara du. Garajea aukeran. 889612. Ramon.

✓ **Pisua salgai Lazkaon, jantzia eta** argitsua. Interesatua balego inor, dei beza 881592 telefonora

Agurrak:

*"Beasaingo alkateak emandu ordena derrepente ilko dala
kaka eiten ez duena"*

(Ataungo antzinako esaera)

"Erderaz datozkion lagun onak, ez ditu ez lagun ez on, euskaldunak"

Artze

"EGONALDIAK FAMILIA EUSKALDUNETAN"

Plangintzan parte hartzeko interesa duten ikasleentzako nahiz ikasleok hartu behar dituzten euskal familia horientzako baldintzak ezartzen dituen Eusko Jaurlaritzako Kultura Sai-

laren Aginduen kopiak Udal-letxeetan aurki daitezke. Egonaldiak uztaitetik irailera bitartean gauzatuko dira eta hilabeteak izango dira.

ORMAIZTEGI: IKERKETA HISTORIKOA SUSTATZEKO LAGUNTZA eskainiko du ZUMALAKARREGI MUSEOAK.

Deialdian zaletu, ikasle edo espezialista orok har dezakete parte. Lanen gai eremua: "Euskal Herriko Gizarte Tradizionalaren Krisia (1808-41)", historiari buruzko azterlanek izan ditzaketen edozein ikuspuntu erabiliz. Proiektuak maiatzak 23rako heleraziko dira Zumalakarregi Muse-

ora, (Iriarte-Erdikoa 20216 Ormaiztegi). Laguntza 270.000 pztatakoa izango da. Lanak 80tik 100 orrialderako luzera izan beharko dute eta 92.go abenduak 9rako aurkeztuko dira. Informazio gehiago jaso nahi izanez gero, dei 889900 telefonora.

AEKjira GOIERRIN

AEKjira Erakusketa Ibiltaria maiatzaren 14tik 17ra izango dugu Ordiziako Barrena Kultur Etxean. AEKk 25 urte hauetan berreuskalduntze prozesuan burutu duen lanaren isladatxo bat izan nahi luke erakusketa honek. 24 panelez osatua dago eta bertan testuak zein argazkiak tartekatzen dira. AEKren eguneroko iharduera isladatuko duen bideo muntaia ere eskainiko da.

Helburua garbia da, bata AEKren eguneroko lana ezagutaraztea eta bestetik, tokian tokiko kultura bultzatzea. Bi panel Goierriko Goiztiri AEKri zuzenduak egongo dira. Erakusketa hau ikusgai egongo da ostegunean eta ostiralean (hilak 14 eta 15) arratsaldeko 6retatik 9etara, larunbata (16) goizeko 11etatik 1era

eta arratsaldeko 6retatik 8retara eta igandean (17) arratsaldeko 6retatik 8retara.

Ostegunean, erakusketa martxan jartzearekin batera txalapartari eta trikitilariak, mokadutxoren bat falta-ko ez dela. Egun bereko 8retan berri, Aurrezki Kutxaren aretoan, Felipe Uriarte mendigoizale ezagunak zuzendurik Makalu gaina hartu zuen espedizioari buruzko diapositiba emanaldia. Ostiralean, Ordiziako plazan bertso afaria izango da, Inaki Muruak, Jose Munduatek, Jon Sarasuak eta Millan Telleriak parte hartuko dutela. Larunbatean kale animazioa, trikitilari, hankapalu eta abarrekin. 7retan Dantza Jaialdia, Ordiziako Jakintza Dantza Taldearen eskutik.

GURE BERRI

Joandako hilean "Goierritarra Aldizkariaren Tajuketa" Prentsa Lokalaren erakusketa paratu genuen Beasaingo Kultur Etxean. Erakusketa ibiltari hau Goierriko herri bakoitzera eta guztietara eramateko prest gaude.

ORDIZIA-BEASAINGO GOARDIAKO FARMAZIAK

Maiatza: 2-3-4: Urbizu; 5: Atorrasagasti; 6: Azpilikueta; 7: Jauregi; 8: Laurnaga; 9-10: Arriola; 11: Cuesta; 12: Arriola; 14: Atorrasagasti; 15-16-17: Azpilikueta; 18: Jauregi; 19: Laurnaga; 20: Cuesta; 21: Arriola; 22: Urbizu; 23-24-25: Atorrasagasti; 26: Azpilikueta; 27: Jauregi; 28: Laurnaga; 29-30-31: Cuesta.

Erredakzio Batzordearen oharra

"Eskutitzak" saila, aldizkarian azaldutako edozein gairi buruz edota interesgarri izan litekeen beste edo-zertaz, GOIERRITARRAko irakurleak adierazi nahi duena idatziz jasotzeko txoko irekia da.

Karta ez da inoiz ibili behar folio batetik gora (gainontzean, kolaborazio moduan hartu genezake, eta derizkiogun modura laburtu ahal izango genuke). Bertan, idazlearen izen-abizenak, telefono eta helbideak eman beharko dira eta kaleratu nahi duen sinadura.

**Eusko Jurlaritzako
Kultur Kontseilariari
edo dagokionari:**

Gutun honen bidez jakin arazi nahi dizuegu atariko frogari buruz daukagun eritzia. "Maizpide"ko ikasleak gara eta aurten azterketa berri bat jarri digute, "Atariko Froga" izenekoa. Froga honen helburua, maila ez duen jendea geldierazteko omen da. Gure us-tez, ordea, EGA ateratzeko oztopo berri bat besterik ez da. Gainera, zergatik ordaindu behar da atariko froga egin baino lehen eta ez egin ondoren? Zer ordaintzen ari gara, EGA ala atariko froga? Horrela jarraituz gero, hurrengo urtean zer jarriko digute?

Beste aldetik, froga hau planteatuta dagoen moduari diskriminazio hutsa deritzogu. Berririo, EGA azterketan gertatzen den bezala, HABEko euskaltegietan ikasten duen jendeak pribilegio gehiago dauzka, atariko froga bere euskaltegian bertan egingo duela eta.

Zein da politika honen benetako helburua, euskara bultzatzea ala jendea HABEko euskaltegietara eramatea? Eta bide batez dirua irabaztea?

**"Maizpide" Euskaltegiko
ikasleak**



**ZALDIBIAKO
UDALA**

Udaletxea	88 03 57/88 74 50
Udaletxea (Faxa)	88 50 43
Kultur Etxea	88 80 90
Kontsultorioa	88 00 27
Eskolak	88 42 51
Larrialdi Zerbitzua	46 12 11/46 13 11/46 14 11
Taxista	88 91 57
D.Y.A.	46 46 22
Gurutze Gorria	88 28 35/88 79 99
Zumarragako Erresidentzia	
Larrialdiak	72 39 13/71 35 61
Suhiltzaileak	88 13 62

**Ideia jatorrenek ere bultzada
behar izaten dute.
Udal arduradunek lagundu
behar diote
GOIERRITARRA ri,**

**GOIERRITARRA
124 p.k. ORDIZIA
Tfnoa: 88 96 12**

1992ko publizitate-prezioak:

(Behin):

Modulo bat	4.000 pzta.
Bi modulo	8.000 pzta.
Orrialde erdia	20.000 pzta.
Orrialde osoa	40.000 pzta.

Prezio hauek zenbaki baterako balio dute. Urtean 10 zenbaki argitaratzen ditugunez, 5 edo 10 zenbakitan beren publizitatea egin nahi dutenek hurrengo deskontua izango dute:

Modulo bat	3.500 pzta.
Bi modulo	7.000 pzta.
Orrialde erdia	17.500 pzta.
Orrialde osoa	35.000 pzta.

Eztabaida pizteko asmoan

Martxoko GOIERRITARRA-n nere idatzia argitaratu zutela ikusita, oraingo honetan landuago eta argiago azaltzen saiatuko naiz, bapatean botatako ikuspuntu nahasi hura: norbaitek kontrako edota aldeko iritzia plazaratu nahi badu, zeri heldua izan dezala, alegia.

Goierri, Euskal Herriko beste leku askotan bezala, euskarak aldaketa haundia izan du mende-hasieratik. Aldaketa hori ekarri duena, batetik, euskara inoiz erabili ez zen zenbait arlotan sartzea izan da; hizkuntza gaurko beharretara moldatu beharra baitzegoen. Baina beste arrazoi bat ere badago: lehen, hemengo euskaldun gehienek euskaraz egiten zuten ia bizitza osoa, eta erdaraz, gutxitan eta euskarakada askotxorekin. Orain, beriz, beti geron baitara bil-duta ez egotekotan, gazte-leraz ondo ikasi eta askotan aritu behar nahitaez; eta euskaraz egitean, erdaren gehiegizko eragina nabari zaigu maiz. Horregatik diot gazteok aurreko belaunaldietakoen euskarari —Goierriko euskarari— arreta haundiagoz erreparatu behar diogula: euskararen senari eutsi eta gatzeleraren menpekeriari ihes egiteko.

Ez dut esan nahi, hala ere, txokokerian erori behar dugunik; Goierriko euskarak idatzizko tradizio haundirik ez duenez, emateko baino hartzeko gehiago baitu euskararen beste aldaeretatik. Hemen-goak, euskara zatitzeko ez baina osatzeko tresna izan behar du: Goierriko bazter hauetan egiten den euskararen baliabideak, euskara batua aberasteko erabili behar ditugu. Batipat, esamoldeei dago-kienez. Ze, nere ustean, ez dago alde haundirik "der" ala "dut" idatzi, "ziero" ala "zeharo", "orregatio" ala "horregatik"... Ez zaigu zaila Euskaltzaindiaren esanera jartzea, hizkuntz batasunaren alde; euskara batuak ekarri baitigu erdaretara jo gabe euskaldunok aisa elkar ulertu ahal izatea eta edozein gairen gainean aritu ahal izatea. Bizkaiko Arratitak Zuberoako Petrararaino, euskara batuaz dakigunok ez daukagu euskaraz elkar ulertu ahal izateko arazorik, eta filosofiatik astrofisikarai-

no, edozein gai lantzen da euskara batuaz.

Gainera, Euskaltzaindiaren erabakien aurka egin gabe ere, badago idazkera kultuago edota herrikoia goa erabiltzeko aukera -ahozko hizkuntzari gertuagotik edota urrutiagotik jarraitzeko aukera, alegia-. Aukera hori, esaldien joskeran ez ezik, hitzen forman ere egin daiteke:

Hitz-forma horiek guztiak ezin dira,

"bait luke", "bait zen", "bait = "bailuke", "baitzen", "baitu", "du", "bait haiz", "bait gara" = "bailhaiz", "baikara", "bainaiz", "bait naiz"... erako aditz-formak	...erakoak
"berak", "berek", "beren", "berentzat"... erako izenordain-formak	= "eurak", "eurek", "euren", "eurentzat"... erakoak
"geu", "geuk", "geure", "geuregan"... erako izenordain-formak	= "gerok", "gerok", "geron", "gerongan"... erakoak
handia = haundia; urrun = urruti; non = nun; batik bat = batipat; bat-batean = bapatean. Eta abar, eta abar.	

noski, nunnahi eta nolanahi erabili. Nun, zeinentzat, ze egoeratan... ari garen kontuan hartu behar. Konparazio baterako, goiko zerrendan eskubialdean daudenak, esango nuke egokiak direla bailaramailako aldizkarian erabiltzeko; ez, ordea, zabalpen haundiagoko komunikabideetan.

Eta adibideak jartzen hasita, zer dira, baina, honenbeste ajola zaizkidan zori-neko esamolde horiek? Hona hemen egunotan entzun edo irakurritako pare bat ale:

— "Jendeak ezagutzen du entzuten emakume hori".

— "Duela gutxi gertatu da".

Euskarari, alabaina, berezkoagoak zaizkio beste hauek:

— "Jendeak aditzez ezaguna du emakume hori".

— "Orainsu gertatu da".

Eta Goierriko euskararen emaria, bertako esamolde hauek izan daitezke:

— "Jendeak badu emakume horren aditzera".

— "Orain-beriki gertatu da".

Hemen azalduko dudan azkeneko burutazioa, erdaratik hartutako hitz eta esapideetaz —"mailegu"etaz— izango da. Izan ere, hizkuntza guztiek jasotzen dituzte maileguak besteetatik. Galerazi-ezinezkoa da hori: alde batera, harremanetan dauden hizkuntzek —hitzak berak dioenez— hartuak eta emanak dauzkatelako ezinbestean; eta bestera, maileguak euren hartzailea aberasten dutelako. Baina bankuaren maileguekin gertatzen den bezelaxe, hizkuntza- maileguak neurritz egin behar dira: ezin dira samaldan eta iturri bakarretik hartu. Bapatean hizkuntza bakarretik mailegu gehiegi hartu ezkeror, maileguen hartzailea mailegu- emalearen menpe eroriko da: emaleak hartzailea jango du. Horra zergatik gure aurrekoen euskara aintzat hartu behar dugun; esan bezala, haiengan gazte-leraren interferentzia txikiagoa izaten baita, esamoldeetan behintzat.

Labur esanda, hau da, beraz, nere iritzia:

a) GOIERRITARRA-n, bailarako esamoldeak erabili behar dira gehienbat (hori baita esamolde horiei eutsi eta euskara batuari eskeintzeko bideetako bat).

b) Idazkerak, Euskaltzaindiak onartutakotik aldendu gabe, ahalik eta herrikoien izan behar du (aldizkaria Goierrikoa eta Goierriakoa dela kontuan).

c) Erdarazko hitz eta esamoldeak kontu haundiz mailegatu behar dira (bestela ere gatzeleratik nahikoa interferentzia jasotzen baititugu, konturatu gabe).

Bukaera gisara, gogora dezadan idatzi honek ez duela izan nahi gogoeta-eztabaiden eragilea besterik. Ez da pentsatu gabe bete beharreko legea; hausnartu beharreko proposamena da. Nolanahi ere, piztu nahi dudana eztabaida honen sutan ez dadila GOIERRITARRA erre!

Intereseko gaiak euskaraz jorratzen dituan bitartean, urte askotarako, GOIERRITARRA!

Xabier Armendaritz

Ba al dakizu...?

GIZARTEA

✓"Garrasi ixila" antolatuturik, Beasain eta Ordizian jende ugari juntatu bide da azkenaldian. Zaldibian ere 25 lagunitik gora eta Lazkaon eta Ataunen ere sortzeaz dago, agi denez, "Gesto" a.

✓"Artapalo", Pakito Mujika Garmendia, ETako ustezko buruzagia "erori" dela eta makina bat manifestazioa, iskanbila e.a. izan da. Tinta ugari isuri da han eta hemen. Orrialde osoak eskaini izan zaizkio berri horri Espainiako periodikuetan eta bertakotan. Horien artean "Interviu" aldizkaria "Artapalo"ren sorterriaz aritu denean, esaterako, bertako gazte jendea "Montilola"ko mehatzetan, taberna-lanetan eta lanbide-ikasketetan partitzen dela zioen. Beraiek badiote..

✓Ataunen suak erretako antigualeko Andalizeta baserriari laguntzeko ia milioi t'erdiz pezetak bildu dira.

✓Seirehun lanpostutik gora galdu dira azken 12 urteotan paperfabrikan. Legorretako Etxezarreta ordainketa etenduran dago.

✓Ormaiztegiko Irizar kooperatiba autobus egilea ez bide dabil egoera onenean.

✓Milaka lagunek erreklamatu zuten Toloaldearako Eskualdeko Hospitala.

✓Sasieta Zabortegian amankomunituriko Udalerriek laister batean izango dute zabor-biltze zerbitzu bateratu bat.

✓Apirilean ziren hastekotan Beasaingo Ezkiaga auzoko frontoiaren eraikitze obrak.

✓Goierri bailarako lur kutsatuak berreskuratzen hasi behar da lhobe erakunde publikoa

✓Goierri mailako bilerak eginak dituzte Ordizia, Itsasondo, Idiazabal eta Lazkaoko gazte asanbladak. Gazte asanbladen izaeraz eztabaidatu dute. Batak besteekin ikasteko, elkarrekin lan egiteko, jostatzeko eta

aktibitateak antolatzeko oinarriak jarri dituzte.

✓Bost milioi enplegatu dira dagoeneko Idiazabalgo polikiroldegia eraikitze-lanetan.

✓Donostia-Gipuzkoako Kutxaren ordezkarien hautaketa dela eta nahasmenak sortu dira Udal-jendeen artean Ordizian.

✓Aurten bukatuko dira Beasaingo Parrokiaren berrabiltze-lanak. Bukatzear Lazkaokoarenak

✓Ordiziako Beti-Alai frontoia kondiziotan jartzeko lanak bukatzekotan daude eta laister hasiko dira herri horretatik Itsasondorainoko, San Juan-go kamino zaharrean, espaloiak egiten.

✓Aldizkari honen 22. zenbakiak Beasaingo "SuperBM" supermerkatua istekotan zela zioen informazioa gezurtatu digu bertako arduraduna den Migel Anjel Kaltzadak. Dioenez, hori konpetentziaren montaia interesatua da eta ez daukate horren kuitadurik oraingoz.

✓Iñaki Dubreuil izango da aurrerantzean Ordiziako PSE-PSOEko erakunde-idazkari berria

KULTURA

✓Beasaingo Loinaz Abesbatzak sozio babestailak bilatzeari ekin dio. Urteko gutxieneko kuota 1.000 pezetatakoa izango da

✓Zumalakarregi Museoak festa bat antolatu du maiatzaren 16rako, Museoen Nazioarteko Eguna eta Museo beraren 3. Urtebetetzea bat eginez. Jai honetan Konfitte-

ria Museoko Joxe Mari Gorrotxategi tolosarrak txokolata eta boladuak prestatuko ditu, Zumalakarregiren garaiko eran, jendear-tean banatzeko. Gaztetxoek bertso-paperrak eta marrazkiak egiteko aukera izango dute. Zumarragako Trikitixak eta Ordizia eta Zumarragako Bertso Eskoletako bertsolari gazteek alaituko dute giroa. "Mundu guztia, eta goierritarrak bereziki, gonbidatu nahi ditugu, gurekin ondo pasa dezaten",



Loinaz korua

FOTO UNANUA

esan digute.

✓"Eustakio Mendizabal Txikia. Hitz Eterna" liburua argitara aterako du "Susa" argitaletxearen eskutik Jon (Mikel) Arano idazleak (GOIERRITARRAko koordinatzaile ere badenak) maiatzean. Bertan, "Txikia" zenak 60. urteetan eta 70. haseretan idatzitako bertso eta poemak bilduko dira, bizi den itsasondotarrak sarrera mardul bat egingo diolarik. Liburu garrantzitsua pertsonaia historiko hori, bere garaia eta Goierri hura ezagutzeko.

✓Goierriin kulturgintzan aritu izan den makina bat gizon- andre joaten ari zaizkigu etengabe. Azkenaldian ez da Aita Ixidro Baztarrika bakarrik hil. Joxe Galarraga, Aramako Mendizabal baserrikoa, 50 urteetan debalde elizako organista-lanak bete zituena hil da isilean. Omenaldia egin omen



Suskribatu zaitez!

**GAUR EDO BIHARKO
KOLABORATZAILEEI:
GURE TELEFONOA**

88 96 12

*Inakurri
eta
zabaltzazu
Goierritarra*

zitzaion urteurrenekoan eta gaitzerdi.

✓I. Auresku Txapelketa ospatu zen joandako apirilak 11an Beasainen. Ostadar eta Aurtzaka dantza-taldeak, elkarlanean.

✓Beasaingo Loinatz eta Ordiziako Oroith abesbatzek kontzertu gogoangarria eskaini zuten egun berean Beasaingo Parrokian.

✓Zarautzen erakusketa bat paratu da, Euskal Herriko Argazkigintza Museo bate-rako proposamen gisa. Bertan Nikolas Le-kuona abangoardiako artista ordiziarraren argazkiak ikus zitezkeen.

✓Xabier Mendiguren beasaindarra dugu Goierriko idazlerik oparoena, segurasko. Bi liburu kaleratu ditu apirilean: "Hamalau" ipuin bilduma berria eta "Sei ipuin amodioz-ko"-ren birrargitalpena. Horiez gain, baditu hamaika liburu (haur literatura eta antzer-ki) argitara emanak.

✓Joxemiel Barandiaranen ondorengoa aukeratuko du Eusko Ikaskuntzak ekainean Oñatin. Burrukak izan bide dira hori dela eta. Tartean Joxemartin Apalategi ataunda-rra.

✓Barandiaran zenari eskainitako museo bat eraikitzea dago Joxemiel Barandiaran Fundazioaren, Ataungo Udalaren eta Eus-ka Herriko instituzio publiko nahiz pribatu

zenbaiten baitan. Adostasunak eta desa-dostasunak ere bai.

✓Aurreko GOIERRITARRAn jartzea ahaztu zitzaigun, baina zer arrai! Denok dakigu zer nolako erretorika erdalduna era-bili ohi duen eta darabilen oraindik Nikolas Iparragirre inkonbustibleak Segura Irratian, kirol-programetan. Bada, jaun-andreok, ge-zurra dirudien arren, euskaraz badaki! Hori frogatzeko, non azaltzen zaigun ETBko Agirretxeren programan Arrate Irratia, Irule-gi Irratikoekin eta beste norbaitekin, Radio Segura euskal irrati soila bailitzan, baldintza berdinetan arituko balitz bezala. Bere-gandik hasi dadila, idiazabalarra.

✓EXPOra joateko aukerak ematen ari zaizkie jubilatuta eta gazteei Udaletxeetan, Diputazioaren laguntzarekin

✓Ordiziako Udalak Udalerrri horretako gi-da turistiko berria argitaratu du



HEZKUNTZA

✓Ordiziako Jakintza Ikastolako zu-zendaritza taldekoa eta bertako HB-ko zinegotzia den Jose Luis Sukia Ikastolen Federakuntzako goi-karguetan dabil, egun-karietako argazkietan ikusi ahal izan dugu-nez. Hezkuntz Kontseilaria den PSOEko Buesak ez omen du bildu nahi ere beraiekin. Euskal mundua aztoraturik eta beste batzuk lotsa gutxi.

✓Eskola eta ikastola askok irekiak dituzte matrikulaketa-



Jose Luis Sukia, ikastolako gerentea eta Profesional Taldeko padrino nagusia.

epeak. Ez dago esan beharrik zer den go-mendagarria: "D" eredua, euskaldunok eus-karaz.

✓Ordiziako Garagartza Plazako Jakintza Ikastola suntsitu eta eskolaurreko zentrua "Villa Eugenia"ra pasatzekotan dira urte hau bukatzerako. Urtarriletik hasiko lirateke egoitza berrian. Hezkuntz Kontseilaritzak makina bat milioi zor die ikastolei (Lazkao-koari, Ordiziakoari...) eta Jakintzakoek ez dute hortik (Buesarengandik) ezer jasoko duten esperantzarik. Kredituak eskatu eta diru iturri berriak bilatzeko ahaleginetan da-bil Jakintzako zuzendaritza.

ARGIaren HARPIDE IZAN NAHI DUT:

IZEN DEITURAK:

HELBIDEA:

HERRIA:

P.K.:TFNOA:

HERRIALDEA:

BANKUA/AURREZKI KUTXA:

SUKURTSALA:

KONTUAREN ZENBAKIA:

*Irakur biharko prentsa
gaurtik*

Industrialdea, 1-2 pabiloiak
20160 Lasarte-Oria
Tfnoa: (943) 37 15 45 - (94) 424 46 63
Faxa: (943) 36 10 48

OINETAKOAK

O I A R B I D E

Laskurain, 12
Telf. 65 37 86
T O L O S A

San Inazio, 14
Telf. 16 04 34
B E A S A I N

Masajista
Tituludunak

Minaz ez egon

Axis

Aurrez
dei
ordua
hartzeko

KIROMASAIA

Goierri kalea, 6 beheara - Tel. 16 04 47 20240 ORDIZIA

GOIERRIKO "GOIZTIRI-AEK":

Eskualdea euskalduntzen

Askori arrotza egingo zaion arren, esan beharra dago Goierrialdea berriz euskalduntzean dituztela jarriak euren helburuak "Goiztiri AEK"koek. Bost urte (ia sei) ondotxo beteak merezi zuten balantze bat.

—Historia piska bat egiguzue.

—AEKren eskualderik berrienetakoa gara. AEKk Goierrin hedatu beharra ikusten bazuen ere, 86ko uda arte ez zen sortu AEKko Euskaltegirik. Ordurarte, Goierriko Euskal Eskolak zihar-duen bakarrik berreuskalduntze lane-tan. 86-87.eko ikasturterako matrikula-zio deia egiten zuten iragarkiak izan zi-ren lehengo aldiz ikusi ziren AEKko txartelak Goierrin. Ikasleen erantzun imajina ezina izan zen, 300 ikasle inguru matrikulatu bait ziren Ordizia eta Beasaingo euskaltegietan.

Hasera hartatik gaur arte, bost ikas-turte pasa dira, eta zer esanik ez, erro-tu gara eskualdean. Gaurregun, lau eus-kaltegi ditugu, Ordizia eta Beasaingoez gain 87-88. ikasturtean Idiazabalen sor-tua eta 88-89.ean Lazkaon, guztira 300 ikasletara hurbiltzen gara. Egun ha-mairu irakasle ari gara euskara suspertze-lanetan.

Aipatzekoa da bost urte hauetan Bea-sain eta Ordiziako Udal Euskaltegiak sortu direla, lehena 87-88.ean eta 89-90.ean bigarrena.

—Irakaskuntza aldetik aurrera-kadarik bai sei urteotan?

—Didaktika edo klaseak emateko eran aurrerapausu garrantzitsuak eman ditugula uste dugu. Batetik, esperient-ziak berak nahitaez, eta bestetik meto-do komunikatiboan saiatzek erakutsi



digute, gure helburua, euskara ezagut-zen eta dakien jendea sortzea baino gehiago euskara eguneroko bizitzan erabiliko duen jendea sortzea dela.

Emaitzak agerian daude, jadanik gure euskaltegietan euskalduntutako jendea ikus baidateke kalean. Adibidez, gure euskaltegian euskalduntutako hiru ikasle, euskara irakasleak dira gaur Goierriko AEKn.

—Zein da euskaltegi bakoitzaren egoera?

—Ordizian, Ikastolak Jose Arana 5ean dituen geletan hasi ginen; jendea-ren erantzuna ikusiz, Jakintzako beste hainbat gela ere erabili beharra izan genuen. 88-89 ikasturtean gaur Udal Eus-kaltegia dagoen lokaletan aritu eta 89ko irailean, Udal Euskaltegiaren so-rarrera zela eta Udalak Santa Ana Ikastet-xean dituen lokaletara pasa gintuen. Hemengo lau gelak txiki geratzen zaiz-kigunez, Ikastolako hainbat gela erabili beharra dugu. Aipatu, 88-an HABEK homologatutako Euskaltegia dela Ordi-ziakoa.

Beasainen, egun Udal Euskaltegia den geletan ekin genion. 87ko irailean Udal Euskaltegiaren sorrerarekin lokal horietatik atera beharra izan genuen. Alkateak, gure arazoari irtenbidea ema-ten saiatuko zela esan arren, ez genuen

erantzunik jaso. Ikasturte horretan kale Nagusiko 15. zenbakiko 1-go pisua alo-katu genuen, bertan lau ikasturte eman genituelariki. Jabeak behar zuela eta 91-92 aurtengo ikasturtean Kale Nagu-siko 5. zenbakiko 3. pisura aldatu gara, pusua-ren alokairua ordaintzen jarraitzen dugularik.

Izal-en, 1987-88 ikasturtean hasita kultur-etxean ari gara euskalduntze la-netan.

Lazkaon, 1988-89 ikasturtean ekin ge-nion euskalduntzeari Elizkristo deitzen den Elizaren lokaletan. 1989-an Elo-segi kaleko 16. zenbakiko 2. pisua alokatu genuen, gaurregun bertan daudelarik.

—Zein da zuen eskaintza?

—Edonora eta edonorengana iristeak arazo handiak suposatzen dizkigu, la-rriena ekonomikoa delarik. HABEK ez dizkigu talde txikiak subentziona-tzen, ezta 48 ikasletik beherako euskaltegirik onartzen. Honela, Lazkaon eta Idiaza-balen ditugun taldeen subentziorik ez dugu jasotzen, defizitarioak geratzen zaizkigularik.

Eskaintza ondorengoa da: goizez, 3, 4, eta 5 ordutako saioak; arratsalde-z 2,30-etatik 4,30-etara, 5,30-etatik 7,30-etara eta gauez 7.30-etatik 9,30-etara. Ikasle gehiena arratsalde-z eta gauez da-

bilkigu. Ikasturtea urrian hasten da eta ekainaren amaieran bukatu. Ondoren Uda-ikastaroak antolatzen ditugu uztai-lean eta irailean hauek 5 ordutako saioak izaten dira eta goizez bakarrik. Eskaintza, zeresanik ez, maila guztietarako egiten da.

—Guzti borrez gain, baduzue bestelako ekintzarik?

—Ikasturtean zehar barru-ekintza mordoska burutzen dugu, aipagarrienak Santo Tomas egunekoak, eskualdeko ikasle eta irakasle guztien arteko mozorro-afari errldoi batekin amaitzen direnak. Udaberrian, Euskalerriko hainbat txoko ezagutu asmoz egiten dugun txangoa. Aipagarria baita ere taldez antolatzen diren asteburuko ateraldiak eta.

Kanpo ekintza bezala antolatzen dugu eguberrietako ipuin, postal eta pappin erakusketa O.H.O-ko ikastetxe mailan bai Ordizian eta bai Beasainen. Aipagarria bata ere, aurtun lehenengo aldiz antolatu dugun helduei zuzenduriko txiste idatzien lehiaketa.

Nazional mailan ere burutzen dira hainbat ekintza, ezagunenak bi urtean behin antolatzen diren KORRIKAK, AEK Eguna, AEKnapada, AEKantuz eta abarretarako antolaketak. Eta momentu honetan, maiatzaren 14-etik 17-ra Ordiziako Barrena Kultur-etxean izango den AEKjira erakusketa ibiltaria eta honen inguruko zenbait kultur ekintza antolatzen ari gara.

“Emaizak agerian daude: AEKk euskalduntutako jendea kalean ikus daiteke. Atzoko 3 ikasle, irakasle ditugu egun”

—Zer nolako barremanak dituzue Udalekin?

—Aurtengo ikasturtean eman digu lehenengo aldiz Beasaingo Udaletxeak diru laguntza. Ordiziakoak zenbait kanpo ekintzatarako laguntza eman izan digu. Hala eta guztiz, eskualdeko Udaletxeekin ditugun harremanak nahiko hotzak dira. Ordizian, transmisio kanpainatik ez dugu ikaslerik jaso. Denak Udal Euskaltegiak. IVAP-en Funtzionarien euskalduntzearekin ere gauza bera. Euskararen iraupena jokoan dagoen bitartean, gurekiko duten jarrera gutxiespenarena eta mesfidantzena da. Konpetentzia izango bagina bezala hartzen gaituzte, euskarak gu denon eta gehiagoren beharra duenean bizirik irtingo badu.

—Zer moduz arlo ekonomikoa?

—Gure arazo gordinenetakoa ikasturterako burutzen ditugun plangintzak defizitarioak izatearena da. Honen arrazoi nagusia, HABEK AEKrekiko darman subentzio politika diskriminazile-

an datza. Euskalerrian ikasle gehiena duen erakundea izani, Udal Euskaltegiekin konparatuta adibidez, bost edo sei aldiz subentzio txikiagoak jasotzen ditu. Aipatutako subentzio xume hori jaso ahal izateko, HABEko ikuskatzaila edozein egun eta ordutan pasa daitekeela, eta momentu horretan klaseetan harrapatzen duen ikasle kopurua- ren arabera aplikatzen dutela subentzioa. Ekintza honek jarraipena baino gehiago harrapaketa dirudi. 48 ikasle baino gutxiagoko zentroak 0 pezetako laguntza izatean, gure kasuan, Lazkao eta Izalgo zentroak bereziki defizitariok gertatzen zaizkigu.

Bi hitzetan azaldutako egoera honi aurre egiteko, egundoko esfortzua egin beharra dugu plangintza horiek aurrera atera ahal izateko... hala nola, ikasleei Euskal Herrian euskara ikasi ahal izateko matrikula altuak kobratzea, zenbait enpresa eta udaletxeri laguntzak eskatzea, bitarteko propioez baliatzea (txoznak, errifak, jaialdiak...), lan baldintza minimotan aritzea etab.

—Zer eskatzen du Goierriko AEK-k?

—Bi hitzetan esanda, AEK-k euskalduntze eta alfabetatze lanetan burutzen duen lanaren errekonozimendua. Euskal Herriaren berreuskalduntzerako ezinbestekoak ikusten ditugularik elkarlana eta elkarlaguntza.

Joseba Telleria

Mikel Aramendi

AEK 1986-eko udan sortu zenez Goierriin, lehenengo lau Korriken eskualdeko antolaketaren ardura Goierriko Euskal Eskolaren gain joan zen. Herrietan Korrika batzordeak sortu ziren, lekuan lekuko antolaketak burutu zirelarik. Aurrerantzean herrietako Korrika batzordeak Korrika guztietan.

Goierriko Goiztiri AEK-k ezagutu zuen lehena, Korrika 5-a izan zen. Aurrerantzean Goiztiri Euskaltegiaren gain joan da eskualdeko antolaketaren ardura. Korrika 5-a 1987.go apirilaren 7-an pasa zen Goierriitik.

Aipatzekoa da Joxe Migel Barandiaranen parte hartzea, kilometro batez eraman bait zuen euskararen lekukoa Beasainen. Es-

Korrika Goierriin

kualdean burututako ekintzarik aipagarriena, egun osoko kotxe karabana bat izan zen Larraitzen bazkalduz. Aipagarria baita ere Beasaingo arkupetan egindako eskualdeko afaria, berrehun bat lagun bildu zirela.

Korrika 6-a, 1989.go apirilaren 19-an izan genuen Goierriin. Aipagarria, Joxe Migel Barandiarani bere Ataungo herrian eskaini zitzaion omenaldia, korrika bertatik igarotzean. Ekintza ugari burutu ziren, bat aipatzekotan, Ordiziako ikastetxeetako haurrekin egin zena, non, aurrez osatutako “Korrika” hitza osatu zen.

Korrika 7-a, 1991.go martxoaren 21-ean

iritsi zen Goierriira. Ormaiztegin sartu eta Olaberri, Lazkao, Beasain, Ordizia, eta Itsasondo zeharkatu ondoren Legorretan utzi zuen eskualdea.

Azpimarragarriena jendetza izan zen. Aipatutako herri guztiak jendez gainezka zeuden, bai Korrikan parte hartuz eta baita ere korrikalariak animatuz. Orain arteko Korrikarik jendetsuena. Lekuko eramaleak besteak beste, Iñaki Murua, Lazkao-Txiki eta Ordiziako Lutxi komadrone izan ziren.

Hainbat ekintzez gain, Korrika egunean, helioz puztutako globoak aireratu ziren euskararen aldeko leloekin. Korrika txikiak antolatu ziren eskualdean, Ordizian, hiru ikastetxeetako haurrek parte hartu zuten.

Patxi

ERRETEGIA

Tfnoa: 80 15 75

LIERNI

LEIAR

KRISTALDEGIA

Eraikin eta merkatalguneen
Kristal ezarrazteaz - Beirategiak - Orma-ispiluak



ERAKUSKETA: Ezkiaga Pasealekua, z/g. Tfno: 88 88 24

BILTEGIA: Beasaingo Industrialdea, Salbatore Auzoa. Tfno: 88 60 70

BEASAIN

UTOESKOL
ARALAR

Urdaneta, 64. Tel. 881651. 20240.ORDIZIA (Gipuzkoa)

GENERALI
Aseguroak

IÑAKI ARIN BAZTARRIKA

Oriako Pasealekua, 20 -Tfnoa: 88 87 02
20200 B E A S A I N



AUTO ESKOLA

TELEFONOAK:

Lazkao: 88 72 99


Beasain: 88 18 96

GIPUZKOA



MUJICA
LIBURUDENDA

Kale Nagusia, 19. Tel. 88 11 94
ORDIZIA



EGUZKI


Inprimategia

Nafarroa Etorbidea, 9

Tfnoa: 88 94 82

20200 B E A S A I N

IBAI - ONDO



ZURGINTZA
HALTZARIAK
P.V.C.ko LEIHOAK


Tailer eta Erakusketa:

Antzizar Auzoa, z/g.

Telef. 88 05 43 **BEASAIN**

TAPIZ ETA GAINEZTADURA
TAILERRA

B i O K, c. b.



Zoruetako moketak, parketak, zintasola, e.a.

Ezkiaga Etorbidea, z/g.

Tfnoak: 88 80 22 - 88 79 17

BEASAIN

GARAJE "LAZKAO"



Renault
ZERBITZU OFIZIALA

Salmenta eta jatorriřko errekanbioak
kotxe konponketa orokorrean

San Prudentzio Auzoa, z/g. Tfnoa: 88 24 42 **LAZKAO**

Soldadutza, Kontzientzia Eragozpena, Intsumisioa

* **IZEN EMATEA.** Gizonezko guztiek (bai soldadutza egin behar dutenek, bai kontzientzia eragozpena aukeratzen dutenek ere), izena eman behar dute 17 urte betetzen dituzten urtean. Izenematea udaletxeetan egin ohi da urte bakoitzeko azken hiruhilabeteetan. Beraz, dagokizun urteko urriaren 1a eta abenduaren 31 bitartean izenematea egin beharko duzu.

* **ALEGAZIOAK ETA LUZAPEN ESKAERA.** Soldadutza ez joateko edo garaia baino berandua joateko eskaera egin nahi izanez gero, izena ematerakoan adierazi beharko duzu.

EZ EGITEA. Soldaduska egitetik kanpo gelditzeko honako arrazoi hauek aurkez ditzakezu:

Gaixotasun eta akats fisikoren bat edukitzea. Hori ziurtatzeko dagokion mediku egiaztagiria aurkeztu beharko duzu. Arrazoi horregatik soldadutzatik kanpo gelditzeko baimena behin-behingo edo behin-betirakoa izan daiteke, eta Soldadutza arautzen duen erreglamenduko eranskinean dituzu zehaztuta arrazoiak (86-IV-2ko Estatuko Boletín Oficiala).

Espetxean egotea. Espetxeko Zuzendariak egindako ziurtagiria aurkeztu beharko da.

Beste estatu batean soldadutza egina izatea; Matrikula Naval delakoko partaide izatea, edo Armadarekin hitza emanda egotea edota dagoneko Armada barruan egotea. Aipaturiko kasu horietan ere eman egin behar da izena.

LUZAPENA. Izena ematerakoan lau luzapen aukera dituzu:

1. *mailakoa:* soldadutza joateko dagoenak bere familia ekonomikoki mantentzen duenean eska daiteke. 3 urtetarako ematen da, eta horien ondoren, eskaera aztertu eta familia egoera berdina baldin bada, ez da Soldadutza egin beharrik izango eta gaztea erreserba egoerara igaroko da.

2. *mailakoa:* ikasketa eta lehiaketa-norgehiagokaren bat prestatzen egoteagatik, gehienez ere 2 urteko luzapena lor daiteke, beti ere 26 urte bete baino lehen. Era horretako luzapenei edozein unetan egin dakieke uko.

3. *mailakoa:* Soldadutza egiteko dagoen anaia, edo dagoeneko soldadutza edo ordezkio gizarte zerbitzua egiten ari den anaia dutenek eska dezakete.

4. *mailakoa:* arrazoi bereziak direla eta ematen da.

5. *mailakoa:* herriak aukeraturik kargu publikoaren bat betetzen dutenei ematen zaie luzapena.

* **KONTZIENTZIA ERAGOZPENA.** Soldadutza egiteko betebeharra dutenek, arrazoi ideologiko, erlijioso, etiko, moral, gizabidezko, filosofiko edo pareko beste arrazoi baterengatik soldadutza egiteari uko egitea da. Eskubide hori gauzatzeko Kontzientzia Eragozpen aitortzea egin behar da lehenik eta behin, eta ondoren "Consejo Nacional de Objeción de Conciencia"-k onartu behar du eskaera. 84-XI-26ko legeak arautzen du K.E.-a. "Defensor del Pueblo"-k inkonstituzionaltzat jo eta errekurritu egin zuen.

NOIZ EGIN? 17 urte betetzen dituzun urteko azken hiruhilabetetik soldadutza joan baino aurreragoko bi hilabete bitarte eska daiteke

Kontzientzia Eragozpena. Horrez gain, soldadutza bukatu ondoren ere eska daiteke, erreserba egoeran zauden bitartean. Baina inoiz ez SOLDADUTZAN ZAUDEN BITARTEAN.

NOLA? Idatzi bat egin beharko duzu K.E.-tzat har zaitzaten eskatuz. 4 kopia egin beharko dituzu; jatorrizkoa NAN-aren kopia batekin Madrila joango da, bestea Loiolan geldituko da, 3.a zuzertzako da eta 4.a Udaletxean utzi beharko duzu.

Guzti hori egin ondoren, 6 hilabete itxaron behar duzu. Epe horretan zure eskaeraren aurkako inolako jakinarazpenik jasotzen ez baduzu, Kontzientzia Eragozle izango zara.

NON? Hona hemen K.E. izateko eskaera egin dezakezun zenbait erakunderen helbideak: CONSEJO NACIONAL DE OBJETORES DE CONCIENCIA. Serrano, 19. 28001 MADRID.

Gobernu Zibila.

Postetxea (administrazio prozedurari jarraituz) Autonomi Elkarteko Gobernu Ordezkaritza.

ZEIN ONDORIO IZAN DITZAKE KONTZIENTZIA ERAGOZLE IZATEAK? Ez duzu soldadutza egin beharrik. Horren ordez, Ordezko Gizarte Zerbitzua egin beharko duzu, hau da, armarik erabili beharrik ez, eta inolako erakunde militarren menpekotasunik ez duen herri-onurarako lanen bat burutu beharko duzu.

* KONTZIENTZIA ERAGOZLEEN ORDEZKO GIZARTE ZERBITZUA

Eskaera egin ondoren, Kontzientzia Eragozletzat har zaitzaten itxaron beharko duzu; dena den, 18 urte betetzen dituzunean sartuko da indarrean, ez lehenago, nahiz eta adin hori baino lehenago eragozle aitortu.

Ordezko Zerbitzuaz arduratzen den bulegoak eragozle aitortu eta urtebetera, iharduera zerrenda bat bidaliko dizu etxera. Zerrenda horretan ordezkio zerbitzua egin dezakezun egitasmo oro aurkituko duzu.

Horiematik hiru egitasmo eta egitasmo horietako bakoitzaren aukeren artean noiz hasi nahi duzun aukeratu beharko duzu.

NON EGIN DAITEKE ORDEZKO GIZARTE ZERBITZUA? Babes Zibilean, ingurugiroa zaintzen, landalur guneak hobetzen, gizarte zerbitzuetan, Osasun zerbitzuetan, e.a.

* INTSUMISIOA

Kontzientzia adierazle bihurtu eta ordezkio zerbitzua egitea onartzen ez dutenak dira intsumiso. Intsumisoentzat,

guztiok bete behar dugun lege zehatz edo derrigorrezko arau bat betetzeari uko egitea da kontzientzia eragozpena, izan ere, agindu hori ez bait dator bat bete nahi ez dutenen kontzientziarekin.

Militarizazioari eusteko herritarrei beren lankidetzak eskatzen dieten legeek ez be-



zala, Kontzientzia Eragozpena menik ez egiteko herritarrek duten modu bat da, legeak agintzen duen jokabidea eta herritarren printzipio etiko, filosofiko eta politikoen arteko kontraesanak sortzen dena.

Intsumisioen erantziz, 84ko legeak ez die K.E. aitortzen. Hona hemen aipatzen dituzten arrazoiak: Eragozle aitortzeko ez dira arrazoi politikoak onartzen.

Epaimahai batek erabakitzen du zein den eragozle eta zein ez.

Ezin da eragozle aitortu soldadutzak dirauen bitartean.

Gerra garaian ez da Kontzientzia Eragozpena onartzen, iharduera militarren jarraipen eta indarpena bezala baino. Horrez gain, lege horrek berak "ordezko gizarte zerbitzua" bete beharra agintzen du eta hori eragozleen ideologiaren aurka doa.

Gizarte zerbitzua militar ikuspegitik antolatuta eta egituratua dago, bai jerarkiari dagokionez, bai eta disziplinari dagokionez ere.

Gizarte zerbitzuan egin behar izaten diren lan horiek, lanik gabe dagoen jendeak egin zitzaketen.

Iharduera esparruak mugatu egiten ditu, Bakearen aldeko Zerbitzu Zibila ez du kontutan hartzen.

Soldadutza baino askoz ere luzeagoa den Ordezko Gizarte Zerbitzua egitera zigortzen zaio eragozleari.

INTSUMISO BIHURTZEKO BI MODU DAUDE ORO HAR:

Eragozle aitortzea taldean, eta CNOC delakoa eragozlearen egoerari buruz erabakiko duen erakundetzat ez onartzea.

Legeak agindutako bidea jarraitzea: CNOC-n eskaera aurkeztea. Eragozletzat aitortu ondoren ordezkio gizarte zerbitzua egiteari uko egitea.

Ordiziako Gazte-Informazioko Bulegoa

AIARZA ANAIAK, C.B.

Yurre Lantegialdea, 10

20212 OLABERRIA

Karrozategia, txapa, pintura eta

automobilak generalean

Tfnoa. 880565

ITXIALDI BATEN ONDOTIK,

Ibaresko Errota berriro martxan

ARAMA eta Itsasondo artean beti ezagun izan da tradiziozko Ibaresko Errota, ibai-ertzean. Urte pare bateko itxialdia sufritu ondoren, urik ailegatzen ez zelako, berriro martxan jarriak ditu aparailuak.

Errota hau "bi urte pasatxo egon da itxialdi, autobiarene zuba egitean ibaiko presa bota zuten, ez zen iristen urik errotara eta beraz...". Dio bertako nagusi den Mikel Irizarrek. Urrik gabe ez baita mogitzen errotarririk; bost errotarri baititu Aramakoak, bakoitzak bere eginkizuna duena, garia, artoa edo garagarra txikitzea.

Ibareskoan, garagarrina, baba, baba txikitua, artotxikitua eta artirina ere eskeini ohi dira eta eskeiniko dira hemendik aurrera. Itxialdia ez omen da gehiegi nabaritu halere, "ze Idiazabalgo errotara alea eramane eta ekartzen genuen irina, lakea, kanjea". Bertakoak botako zuten faltan ordea eta ez da harritzekoa: badakizue zein usain gozoa egoten den errotetan!

Artirina eta orrea ere egiten dute talotarako. "Babatxikiturik ez dugu egiten nahiz eskea izan, hori atzenduta dago eta konpostua sartua; baba zeredozer saltzen da, baina gero gizona, langilea, asko kostatzen da eta eskulan asko dauka. Makinak berriz, handiak daude, errez txikitzen dute-nak".

Zaharkiturik gelditzen ari dela orokorrean errota, alegia. Produktzioa behar bait du eta errentabilitatea, bestela ez du balio, Mikelen ustez. Festetan eta taloegileak sortu dira bai, esaten diot. "Elur garaian bai, kapritxo bezala; bestela ez dago eskari askorik, behin eguzkia epeltzen hasiz gero, akabo, ahaztu egiten da jendea. Antzinako ohitura ez galtzeko lain besterik ez zaio eusten".

Konpostua sartuta, zerealak beheraka, errota sistema antigoal eta museo tipora bai eta negozio bezala ez da ikusten. Makina bat apareju eta erreminta gordetzen dira, zulatzeakoak, "bufardak"-eta bertan. Bere onenak eman dituela errotak, "kapritxo-zo zaindu nahi dituenarentzat, bestela ez du etorkizunik. Halere, garai batean bezala ez da saltzen. Lantokiak, bizimoduak aldatzen ari dira, erosotasunera jotzen da eta".

Errotariarena ofizio zen garai batean eta gustoz eginiko lana. "Berez, gaztetatik errotaria naiz, besterik ez dugu. Aldatzen joan behar denborak aldatu diren bezala...".

Gainontzean Goierriin badira beste errota banaka batzu, zutik oraindik: Idiazabalgo errotan artoa eta garia ehotzen dute, Beasaingo Igartzan eta Irizararren aitaren jaiotetxean, Lazkao "Iribe"n (Errotaundin), ere ehotzen da. "Pagosa" egin zen eta akabo okindegi txiki guztiak. Lehenagotik datozenen artean Legorretakoa eta berri "zahar-erako"ak ere badatoz oraintsu: baserrikoa eta bestelako ogia erretzen da Ormaiztegi eta Zaldibian.

Historia eta istorioak

Errota horretakoekin liburuak bete litezke. Estraperlo eta gerraondoreneko kontuak... "Gure ezagueraren aurretik izandako errotariak ezagutu ditu Ibaresek". Bi-hiru mende izango omen ditu, Irizarren esanetan.

Ja mende honetan, gerra garaian, Ibareskoa taberna eta okindegi zen eta inguru guztiotatik jende-prozesioa bertara: "As-teasu, Zizurkil eta Larrauldik zetorren jendea ere ezagutzen nuen. Beheko jendea etortzen zen asko. Orduan bazen gobernuak diktatutako legeren bat, 42.ekoa, erderaz esaten zioten "molinos maquineros" eta "molinos harineros"; hor sartzen ez zirenak itxi egin zituzten, ezin bait zituzten kontrolatu". Horrela, urte batean 1.010.000 kilo arto txikitu, "ihotu" ziren bertan.


Errotarietaz gauza asko esan dira, la-kan lapurtzen zutena, fama on handirik ez zuten, aidanez: "Errotaz aldatuko haiz, baina lapurrez ez", e.a. Kontu zaharrok ut-

zita, famosozkoa zen Satur Irizar hiltzean Jon eta Mikel anaien esku gelditu zen "Ibasko" errota. 60.etik 32 urte daramatza-te errotari, okin eta pentsuzale gisa, Itsasondo, Lazkao, Altzaga, Arama eta beste-tan partiketak eginez.

74.-75.ean, Goierriko okinak juntatuta PAGOSA eratu zuten eta Ordiziako "Olano"nen aldameneko tendan ogia saltzetik uztean, hazi eta baratzetako botikekin, nekazal-gaiekin hasi ziren. 80.ean egin ziren Aramako Errotaren jabe, herri horretako beste zortzi (eta 50 bat Gipuzkoako) baserri bezala, "Herederos de Zavala", Villafuerteko Kondeena baitzen. Uholdeen ondoren ireki zuten biltegia Lazkaon.

Ordiziako tendan sartu, enkarguak utzi eta atera makina bat baserritarrek egiten du. Nekazal-munduko gutxi izango da Irizar anaiak ezagutzen ez dituenik, perira datozenak... "Perira jeisten, badakizu, azkar etorri eta azkar joan egiten du jendeak orain". Kontu zaharrak joan ziren eta Mike-li zazpi bat urte geratuko zaizkio erretirat-zeko.

"Agian, orduan, txirrin-txarran denborapatzeko eta ez bestetarako jarriko dugu, bizimoduak eztaigu nora joko duen eta". Gaur edo bihar ere ogia eta jaki naturalak beharko ditugu bai, lau eta bi hankakook.

J.M. Arano

ORAIN DELA DEXENTE HASI ZIREN GASTATZEN. BANAKA AURKI LITEZKE

Azken morroiak

Nagusia nagusi eta morroia morroi. Onak eta txarrak, denetatik izango zen. Ez genuke estereotipo faltsurik eman nahi. Kaleko lantegiak ugaltzen hasi zirenean hasi ziren bakantzen morroiak ere. Industrializazioak eman zion errematea mendeetan tradiziozko izandakoari. Morroiaren "piurak" osatu izan du gure baserrien historia puska handi bat. Bat edo beste geratuko zaigu oraindik Goierrin.



Garai batean eta gaurko aldean, familietan ume asko izanik, eta irabaziak eta beste nahiko murrizak ohi zirenez, lehenengo jaunartzea eginez gero morroi bidaltzen ziren baserrietako mutikoak. Neskatxak, berriz, haurtzain.

Itsasondoko "Ibai-Ertz" idazle ezaguna, nire "Amona Ximonaren kontuak eta koitak" liburu argitaragabeko pasarte bat, Idiazabalgo morroi batenak eta Segurako Lardizabalen bertso batzu ekarri ditugu erreportai honetara guk.

Jon Mikel Arano

Morroí-klase batzuk bai

Asteko, esan dezadan morroia gizonezkoa izango zala, mutikoak batzutan eta edadetua beste batzutan. Eldua mutilzarra, noski.

Mutil-koxkorak

Aitaren etxean ao asko eta janari gutxitxo. Morrontzara. Mutil koskor oek beren etxeetara erriko festetan edo gabonetan jeitsi oi ziran egun pare bateko permisuekin. Beste ainbeste neskatxak. Ezagutzen ditut bat baino geiago esaten dutenak "Nik batxillerra alako baserrian egin nian". Beste morroi izandako batek esaten du, ez noa esatera zein dan, nola morroi joan zan eta leendabiziko aparian erdi- igerian zebiltzan arrai puxka batzuk jan zituztela arrozarekin. Gero, berak dionez, jabetu omen zan etxeakoandre ark "flakeziak" izaten zituela eta txurrit egiten zuela barrenak alaitzeko.

Morrontza trato au itzezkoa eta urtebetekoa izango zan eta mutil koskor oei ez zitzaie nai orduko urtea joaten. Beren lanaren truk otordua, mantenua eta zerbait jantzi izaten zuten. Urtean behingo etxerako bisitarako zerbait eskupeko.

Atorranteak

Gizonezko morroiak, geienak, naiko buru-arinak izap oi ziren. Tratante-etxeetan eukitzen zituzten alakoak. Ganadu- tratanteek perian-edo billatzen zituzten era hortako "fulanoak" eta hala karreatu oi zituzten

baserrira. Bein batean, eta au egia da, auetako morroi bati esaten diote tabernan kontu-kontari ari zala: "I, zuen nagusiak anka autsi omen dik". Erantzuna: "Nagusiak nai duena egiten dik".

Talentu gutxi eta lanerako gogo aundirik ez. Inoiz perira jeisten baziran, biaramonean aien esperantzarik ez izan, baldin eta poltsikuan dirurik bazuten. An etorriko ziran etxeruntz bidea ezker-eskubi neurtuz. Etxean sartu eta, naiz eta eskilara armallak neurri jakiñekoak izan, 2-3 zm. altuagoak aurkituko zituzten. Aste barruan bere onera etorriko ziran, danak ere.

Askok eta asko, artixtak ere izango zenitun, baita zirkoko numeroak egin ere. Adib.: bi eskuak gerri-atzekaldean lotu, lurrean zegon ardo-ontzia ortzekin artu eta bere artan edan. Edo, jarri belauniko, kokotzarekin atzeraka lurra jo eta, eskuz baliatu gabe, salto bat jo eta zutik jarri. Edo, belauniko jarri eta ipur-masallarekin intxaurrak ausi. Alako xelebrekeriak! Bazan beste morroi bat, tabernan sartu eta gazteek adarra jotzeagatik esan diote: "Txomin, txinoak janariari usaia eginda bizi izateko inbentua atera omen diate!". Morroiak: "A bai e? Ala bizi izaten asten zeratenean neri esan eta morrontza utzita zuen kuadrillan bereala sartuko nauki!".

Kategoriakoak

Erri guztietan ziran morroiak. Eta oien artean suerte polita izan zuten

morroiak ere bai igoal. Baziran azienda onak zituzten baserriak eta etxean danak alabak, akaso. Bertako nagusi-etxeakoandreak lanez gaiñezka. Morroia bear. Nagusiak zaartutakoan, eta morroia ondo portatu baldin bazan, alaba zaarrenarekin ezkonduko zan, apika. "Ogie muturretik asi bear bait da", garaian esaten zanez.

Alabaren gizonak, etorritakoak, etxeakoandre eta nagusiei errespetu bat zorko zien eta betebear batzuk izango zitun, baiño "todos los terrenos mios" gixan geratzen zan. Kategoriko morroiok, kontu askotan, etxeok semek bezela jokutzen zuten eta mantenez aparte illeko edo urteko onenbesteko bat.

Bestelakoak

Iñor edadetu edo alargudu da eta semerik ez du: morroi joatea beste aterabiderik ez zuen. Mantenu eta jantziaren aldera joango zan familianoren baten baserrira. Beste baserri batzutan, enkarguak egiteko eta umerik ez bazuten Fraisorora joko zuten, umezurtzen bat inguratzekotan. Etxekoak azitakoan, "andafuerako" soñekoa emango zieten igoal umezurtzei eta nola edo ala billatu bearko zuten bizimodua munduan barrena.

Garai aietan ez zan Seguridade Soziala edo dalako ori kotizatzen, eta orrezaz gañera, nagusiek eskubidea izaten zuten morroia despatxatzeko, ezereen indeminizazio edo kalte-

ordañik gabe. Morroiak, nai zuenean zeukan aldegitea. Batzutan zer esanik gabe joango zen, sesioak eta istilluak ere izango ziren batzu-batzutan. Ezagutu ditugu morroiak azioak eta bengantzak egiten nagusiei. Kotizatzeke garaia ere eldu zan, baño nagusi batzuk legez kanpo ibiliko ziran. Morroi bat xaartu zanean bere illobek etxeratu dute eta nun jabetzen

diran etzitzaiola kotizatu. Illoba oek Magistraturara jo dute, eta epaia irabazi ondoren, kotiza arazten dizkie atzeratu guztiak errekaru guztiarekin eta orrela lortzen dute pentsioa bere osabarentzat. Ori ere ezagutu degu. Ara nola merkea garesti atera zitzairen. Ixtimazio aundirik etzutenak ere baziran. Baserritar batzuk bi idi pare

euki oi zituzten. Pare onena kalera etorri bear zutenerako, eta idi argalak etxean, morroiak aiekin lan egin zezan.

Kontratorik ez zan tartean, jeneralean, eta morroi oek, tamalez, geienetan Mixerikordian izaten zituzten beren azken egunak.

"Ibai-Ertz"

Etxearen mesedekoak

Etxe geienetan ziran morroiak. Olasagastin morroia, Azubin ere morroia, baita bi morroi ere Azubin, gero arrubian aritzen ziran lanean eta. Soroan lana zanean soroan, eta arbel arrubiko lana zanean antxe arrubizuloan.

Bi morroi Azubin eta Olasagastin ere morroi bikaina eukitzen zuten. Ezagutu genituen oiek beintzat onak ziran, ez morroi alprojak, iñundik ere.

Soldataren truke egongo ziran. Ondo kontsideratuta-ta bai, baiña garai aietan ondo kontsideratua izatea ez zan asko. Total, familiko bezela eukiko zituztela, janean eta ola zer esanik ez. Orain bai, lana. Goizean goiz jeiki eta sorora. Aurrena beiak jetzi, aiei azpiak egin eta gaiña gañerakoak.

Oraingo beiak ba o obeto egoten zirala ordukoak, kuantu. Naiko arbela ekartzen baizitzaien basotik. Aldian bein azpiak atera eta oinbesteko alturan orbela bota eta guri-guri egoten ziran beiak orbeletan.

Morroiak, jeikita, sorora jeneralmente. Soroan lan asko egiten zan, dana beiekin egin ere: laborea, artoa eta garia, asko. Terreno guztiak laborerako. Gaiñantzean, muiñoko belar gutxi. Gutxi, igitaiarekin ebakitzeko moduan. Beiak jetzita sorora egunak argitzerako, 8etarako gosatzen aritzen ziran da.

Klase askotako morroiak ziran, etxearen mesedekoak eta etxekalteak baita. Etxekoandrearekin ezkontzen ziranik ere izango zan tarteka-marteka. Ortze daukazu bat, Azubiko morroia, bertako batekin ezkondua. Urkikoa zan morroia, langille fiña eta gizon ona.

Azubin iru senide zeuden, andik iñora ezkondu gabe. Iru alzpak neskazaar eta edadean aurrera sartuta. Iñor ez zan ezkonduko eta, nun, morroiarekin ezkondu zaarrena. 40-ta geiago izango zitun ordurako Bernardinak, baita geixeago. Urte batzuk bazitun eta ez zuten ondorengorik utzi.

J.M. Aranoren

"Amona Ximonaren kontuak eta koitak" liburu argitaragabetik.



Lehengo morroiak oroitzuz

SEGURAKO V Elorri Bertso Paper Saria; irabazle gertaturiko sortako sei bertso.

- 1.-Euskal Herrian jende ugari egona badago morroi Nahiz ta bajeza gaur iruditu zenbait jende gazte harroi Oraindik ere ez dezagula egin oso altu orroi gerta lezaiguke denoi zer esaten dedan oroi Langabezia atzaparretan egiten bagera eroi Gerta liteke katu bihurtu orain arte zena leoi
- 2.-Mundu txar honek ematen du bai horrenbeste jira bira Eta jarri nahiz morroi ugari zergaitik ziran begira Sendi askotan haurrak ugari eta zer eraman maira komeri latzak badira begiratu aurpegira matrail hezurak zorrotzak eta begietako dirdira Zerbait jateko morroi joan behar artzai edo baserrira
- 3.-Sendi askotan nagusia zen mixeraren indarra Eta morrontza izango zuten irtenbide bat bakarra Sarri askotan hamar hamabi urtekin joan beharra ez zen izango ederra amaren zotin negarra Ondo gogoan geldituko zen egiten zuen agurra Orduan ere maiteko zuten gurasoek bere haurra
- 4.-Errudun asko aurki daitezke bila hasiko bagina Eta azkena ez zen izango erretorean doktrina Haurrak ekarri ugari eta gero mantendu ezina horrek ematen du mina hau da bizitzaren grina baina bizitzak jarraitu behar eta horren eragina Datorrenari heldu beharra nahiz ez izan atsegina
- 5.-Edozein ere gaztetatikan morrontzan bazen hasia Bizitza zer den izango zuen garaiz asko ikasia Eta gaitz erdi jatorra bazen etxean zen nagusia bestela irabazia ez zen izango azia Lana ugari eta jateko baba erdi egosia Eta horrela igarotzen zen morroi askoren bizia
- 6.-Fama txar asko ere morroiak izaten zuten berekin Noizik eta behin lagun egiten zelako ardoarekin Beste batzuek alferrak berriz betik ezin ibili fin baina morroiak bazekin noiz eta nola zer egin aberastea zaila nola zen zeukaten soldatarekin Alaitasuna eros ziteken tabernan bi txanponekin

FELIX LARDIZABAL

"Nagusiak esan beharko nolako morroia naizen"

Manuel Ariztimuño Martinez idiazabalarrak betetzear ditu 37 urte, morroi-kontuetaz ezer asko ez dakiela dio, bera "pentsionista" da, bizkar-hezurra izorraturik baitauka, "eta lagundu egiten dut Olazagibel baserrian. Ezin dut kontratupean lanik egin, pentsioa kenduko bait lidateke", behin gertatu zitzaion bezala.

Amarik ez zuen ezagutu, "ama hil eta gero aita erdaldun batekin ezkondu zen eta ez nuen euskararik ikasi, ez baitzidaten erakutsi".

Onartzen du morroitzat daukala jendeak eta, inor gutxi geratuko dela halakorik esanda koan, "beti geratzen da norbait nonbait, nik dakidala: ezaguna da Gabriel, Esnaola artzaiarentzat morroi dabilena". Edota "Fraisoro"tik zenbait baserrietara oraindik ere etortzen direnak.

Bere lanak behiak jetzi, jatenak eman, azpiak egin-atera



e.a.-etan banatzen dira. 40 behi dituzte Olazagibelen eta 33 behi jeztea ere tokatu izan zaio noiz-behin. "Bolatatan nabil baserrian, azken 2-3 urteotan urte-erdi inguru egiten dut urteko".

Tipikoa ez omen da izango, baina oraingoz gustora sentitzen da Ariztimuño, "lana ez zaigu falta, sobra eta gehiegi dakizu baserriko lana nolakoa den. Uste dut gainera, ez dela lanik galduko, neguan lan gehiago dugu, behienaz gain, artzai-lanak ere egin behar izaten baitira, inguruotan ordea, mendira igo gabe".

Gainontzean, morroi xelebre-xamarra edo ez ote den galdetutakoan, "nolako morroia naizen nagusiek esan behar dute" esango dizu. Ez dugu duda egiten langile fina izango dena. Morroien kontu hori galduko den ustekoa dugu Manolo: "Txarrerako dela uste dut, ez nuke jakingo esaten zergatik baina".

KATTALIN

ERRETEGIA - SAGARDOTEGIA

*Sagardoa
txotxetik*

Antzizar Auzoa, 4, "Biona" etxea. (Polideportibo ondoan) TEL. 88 92 52 BEASAIN

MUJKA oinetakoak

Emakumezko, gizonezko eta haurrentzat.

Nafarroa etorbidea, 11 Tel. 88 27 16 BEASAIN

GERRIKO

liburudenda

• Diskak • Liburuak • Jostailu
didaktikoak • Eskola materiala •
Bulego materiala

Elosegi 16 • Tfnoa.: 88 65 00 - Fax: 88 79 71
20210 LAZKAO (Gipuzkoa)



MUEBLES
Ordizia
HALTZARIAK

46, Posta Kutxa
ORDIZIA

Tfnoak: 88 23 50
88 23 54
88 11 92
88 53 50



IRYROK S.L.
ZERBITZU OFIZIALA



N-1 Madrid-Irun Errepidea
Tfnoak: 88 51 50 - 88 51 54

OLABERRIA

RAIMON MUSIKALA

SANYO BANATZAILE OFIZIALA

Korda eta Haize musikagailuak

ZALDIZURRETA, Z/G.

Tfnoa: 88 55 20

BEASAIN

GURPIL
BIZIKLETAK

Bideluze Plaza, z/g. - Telf: 88 89 51

Nafarroa Etorbidea, 3. - Telf: 88 21 03

20200 B E A S A I N



Santa Maria, 8 - Tel. 88 12 11 - ORDIZIA

HIDALGO

BITXIDENDA • ERLOJUDENDA

LEGAZPI, 4
Tfnoa: 88 04 06

ORDIZIA

MUJIK A AUTOAK S.M

JABIER Mujika Txapartegi

tailer eta zerbitzu-burua

N-1 Errep. Nagusia., 419.Km

Tfna: 88 74 00 / 88 74 04

Fax: 88 79 52 BEASAIN



KONTSULTORIO
MEDIKU-KIRURGIKO A

Goieritarrentzako mediku zerbitzu askotarikoak
ordua aurretik eskatuz. Tfnoa: 88 57 50 - 88 58 54

Nafarroa etorbidea, 25 - 2. BEASAIN


BEASAINGO
TABERNARIEN
ELKARTEA

Goierriko "alajak" eta beste

Gerraurreko "Euskalerriaren alde" alizkariaren ale batek dakar. Gipuzkoa-ko herrietan neurriak hartzen omen ziren aurreko mendeetan, frantses-tropen inbasioaren beldur. Ondo gorde kobazuloetan edota gutxien meatxaturiko herrietara bidaltzen ziren, aidanez, balorea zuten gauza eta paperak, soldadu-txarren eskuetan galdu ez zitezen, bazpaere.

1794 inbasioan beste prozedura bat erabili zen: Diputazioari entregatu zituzten zituzten zilarrak Gipuzkoako elizek, berau enkargatu zedin haiek saltzeaz. Horrela, baliokoak zirenak galtzea galerazi eta gure lurraldea defenditzeko errekurtoak bilatzen ziren. Hona hemen ordukoan entregatu zirenen balioak:

Herria	Errealak
Astigarreta	1.320
Baliarrain	220
Zerain	20.320
Ezkioga	18.980
Gabiria	7.292
(Eta 17 marabedi)	
Mutiloa	22.640
Ormaiztegi	4.450
Segura	55.385
Ikaztegieta	4.735
Itxaso	5.065
Itsasondo	26.390



Zaldibiako Santa Fe parrokiako bataio-pontea eta Jauregiren "Via-Crucis"aren azala. "Iztueta'ren Olerkiak" liburutik.

—Itsasondoko "Kantillape"tik hartua. Arrantza asko zaintzen zen garai batean. 1870.ean, ibai-zaintzaile bat zegoen Itsasondo eta Legorreta arteko Zubingo errekan. Erreka hori babesteko bi herri horien arteko akordio bat zen. Udalek bazuten boterea herriko arrantza eta ehizeko arauak jartzeko. Itsasondoren kasuan arau oso zehaztuak eta neurri gogorrak: galeretara bidaltzen zituzten arte txarrekin arrantzan harrapatuak.

—Soldaduskara zihoazen mutil analfabetoek (eta nor ez zen izango analfa-

beto orduan?) permisurik ez eta soldadutza luzeago zuten.

—"Las Minas de Cobre de Aralar" liburutik jasoa. Ez zen harritzekoa izango sesioak, iskanbilak, irainak eta era-soak sortzea garai bateko Aralarko kobre-meatzetan. Amezketan alde horretan prantses-euskaldunak, madrildarrak, naparrak, frantzesak, Bohemiakoak eta auskalo zenbat hizkuntz, ohitura eta jenio ezberdinetako langileak zirenan. Lanak emango zituztoren Amezketako alkate-epaileari.

1735-X-16an, minetako laboreak hasi eta urtebetera, Astonalde-Arritzaga inguruan, napar eta frantsesen artean iskanbila piztu da, Inazio Gorostegi haiek apartatzera joan eta meatzari batek emandako kolpe batek zauritu zuen. Pedro Mendizabal herrikidea hilik aurkitu zuten, tiro batez, handiagotara joan baitzen liskarra. Eragileak ihes. Lapurretak, pasarak eta abar eguneroko ogia bide ziren Aralarko meatzarien artean.

—1802ko Inauterietan Asteartita arratsalde osoan aritu ziren bertsotan Plaza Zarrean Fernando Amezketarra, Altamira, Txabalategi eta Amezketako Zabala. Juan Inazio Iztueta zaldibiar idazle, dantzari eta folklorista Tolosako udaletxeko kalabozoan zegoen preso. Tolosako "Galtzaundi"k dixit.

—Ea hurrengoan gauza politagoak jartzen ditugun.

Kexexo

KORTA mariskeria

Etxeko haztegiak

Menu Berezia (2 pertsona gutxienez)

- ☐ Langostinoa ☐ Txangurroa
- ☐ Almejak ☐ Misera -
- ☐ Añares cava edo Antina horratzardoa -
- ☐ Postrea, kafea likoreak-

PREZIOA: 3.500 pta. (+ BEZ)

GABIRIA

Tfnoa: 88 71 86

GOIERRI

Auto errekanbioak

- Automobil-Zerbitzu orokorrak
- Lucas Girling, Valeo Marketan banatzaile ofiziala

Nafarroa etorbidea, 29
Tfnoa: (943) 88 45
Fax: (943) 88 88 09
20200 BEASAIN (Gipuzkoa)

Urola 1
Tfnoa-Fax.: (943) 72 05 69
20700 ZUMARRAGA
(Gipuzkoa)

Atleta handi baten erretratu ttikia

Jose txo Imaz defini dezakeen ezaugarri bat azpimarratu beharko banu, abiadura azpimarratuko nuke. Azkar hitzegiten du, elkarriketan gaina hartu nahiko bailizun; esku-keinu azkarrez ere baliatzen da, bere hizketaldiari indar eta enfasia ematearren; eta, hizketan ari zaizula, hankak mugituko ditu, geldi egoteko gauza ez bailitzan edo.....Korrika abiatzeko pronto dagoenaren antzo. Izan ere, ez bait du edonola arineketan egiten. Aguro baino aguroago egin behar da korrika berea bezalako kirol-historialea osatzeko.

"46.ean basi nintzen ni. Egia esan, txiripaz. Laguntaldekook beti genbiltzan batetik bestera korrika eta, egun batez, bara non Gipuzkoako Eskolarteko Txapelketa ospatu behar zenaren berri izan eta parte hartzea erabaki genuen. Karrera hartan 2. atera nintzen. Hurrengo urtean, 15 urte nituela, Real Sociedad-eko atletismo-sailean fitxatu eta Gipuzkoako Txapelketa irabazi nuen. Hiru denboraldi eman nituen Realarekin eta, karreretan aurren-aurreneko postuetan irteten nintzen beti."

Donostiatik Beasaina bizitzera etorri beharrak atletismoa uztera eraman zuen txapeldun gaztea, herritik hiriburura entrenatzera joateko modurik ez zuelako. Beasaingo Loinatz Futbol-Taldean sartu zen. Ekipo honetatik Euskalduna-ra joan zen eta, beste zenbait ekipotan ibili ondoren, bizitzaren beharrek eraginda, futbola ere utzi egin behar.

Nekez sinetsiko zuen garai hartan Josetxok atleta gazte zapuztu haren bigarren loraldia 40 urte ezkerotzik emango zenik. Adin horretatik aurrera, helduen mailan, titulu, trofeo, domina eta txapelketak barra-barra irabazi eta irabazten ari den arren, bakan batzu baino ez ditut azalduko.

"Orain dela 13 urte atletismoa berriro egiten basi eta, Oviedon, pista-txapelketan biru domina lortu ni-


tuen: bat 100 metrotan, beste bat 800 m.tan eta, birugarrera, 4x100tako errele-buetan. 83.-ean, Valentzian, Espainiako Txapelketetan, bi modalitate-tan atera nintzen txapeldun: 400 eta 800 m.tan. Hori baino lehen, Santander-en Espainiako azpitxapeldun-tituluak lortu nituen 1.500 eta 800etan. 83.-etik aurrera, ia urtero, modalitate batean edo bestean Espainiako Txapeldunaren tituluak atera ditut. Logroñon, Vic-en... Europako eta Munduko Txapelketetan ere ibilia naiz eta, arrakastarik handiena 89.ean lortu nuen, Dinamarkako Mundu-Jokuetan, 300-etako besi-lasterketan munduko txapeldun izatera iritsi bait nintzen."

Horrenbeste titulu eta trofeo irabazitakoak kirola bera jarriko du beti dominen gainetik. Dominei baino kirolari garrantzi gehiago: "Postu onak ateratzea baino gehiago marka onak egitea interesatzen zait niri. 100 m.tako karrera bat irabazten baduzu, baina horretarako 20 segundu inbertituz, ez duzu ezer egin, hori, denbora horretan, edo-

nork egiten du eta. Nik iaz, 58 urte nituela, 400ak minutu batean egiten nituen, eta hori kontutan hartzekoa da noski."

Dominei buruz duen pentsamoldea garbi adierazten da beste hitz hauetan ere: "Beharbada krossean basi nintzenekoa politagoa zen oraingoa baino. Hasiera hartan, karreretan parte hartzea bestelako kezkarik ez nuen. Orain, ordea, kross-zaleek lehenengo postuetan ateratzea exijitzen didate, eta horrek niretzat onak ez diren urduritasun eta kezak sortarazten dizkit."

Josetxo abiadurak defini dezakeela esan dut, baina baita bihotzak ere. Eta, hori esanda, ez naiz kirolari-bihotz sendo eta indartsu bati buruz ari, pertsona zintzo eta jator baten bihotz bigunaz baizik. Halako bihotz



za duena aita bat bezalakoxea bait da Oridizia Kirol Elkartean entrenatzen duten atleta gazteentzat.

"Kontua zera besterik ez da, Oridizian aritzen garen atleta guztiok oso ongi bartzan dugula elkar."

Gure eskualdean atletismoa behar bezala egin ahal izateko, ea zer somatzen duen faltan galdetzen diot Josetxori. "Hitzetik hortzera esatekotan, kirol moeta hori egin abal izatea ez da beti oso erraza izaten, atletismoak gastu handiak bait dakartza berarekin. Horrezaz aparte,

duazkagun baino instalakuntza gehiago behar ditugu. Egia esan, eduki, baditugu laguntza ekonomikoak, baina ez behar ainakoak."

Futbolaren tentazioa etorkizun oneko atleta asko suntsitzen ari dela esaten dit Josetxok. "Futbolaren arrakasta soziala dela eta ez dela, oso atleta onak diren gazte batek baino gehiagok atletismoa utzi eta futbol-taldeetan jokatzeari ekiten dio. Zertarako ordea? Izan ere, atleta bikainak ateratzeko abalmen faltarik ez duten horiek oso gutxitan iristen bait dira punta-puntako fut-

bolariak izatera. Badakit atletismoa baino futbola erosoagoa dela, atletismoan gizabanakoaren lana bakarrik azaltzen bait da, eta futbolean, aldiz, taldearen babesean gizabanakoaren akatsak eta balio ezinak ez dira horren nabarmenak izaten. Nik ez dut futbolaren kontrako ezer, jakina. Dena dela, nire ustez, zerbait egin beharko litzateke kirolariek atletismoaren mundutik futbolarenerainoko ibesaldi horiek egin ez ditzaten."

Xabier Gartzia.

Bi lerrotan

—Maiatzean Espainiako Itzulia izango da, eta Marino handiak ezingo du parte hartu. Ea lehenbaitlehen osatzen den. Horixe opa diogu Goierriko txirrituzale guztiok.

—Apirilean jarri dira martxan Beasaingo Antzizar Poli kiroldegian bi Udak Kirol Eskola berri, futbol eta esku baloikoak hain zuzen.

—Iker Perez Ordiziako igerilaria selezionatua izan da "Zortzi Nazioen" lehiaketarako. Espainiako Selezioarekin izan zen Estokolmon apirilaren 18 eta 19an.

—Herri bereko Santos Regilek rugbyko mundialean parte hartu du junior mailan.

EGUTEGIA:

—**Ordiziako Mendizaleak: Maiatzak, 3:** Quifosa-Putxerri- Igaratza-Amezkea; **10:** Herriko Umeen Martxa; **17:** Legran- Cantabria mendizerra; **24:** Urederra-Urba; **31:** Saioa-Bertizko Jaureria.

—Maiatzean "Beasaingo Hiria" karting-trofeoa jokatuko da.


—Idiazabalgo Kirol Elkarteko mendi saila: Maiatzak **10:** Mendizaleen festa (8,30); **24:** Idiazabal-Ataun S. Gregorio (8,30).

Palacin
KIROLAK
Neurriko bizikleten salmenta
konponketa eta montajea

Urdaneta 56 • 16 11 97 tfnoa • ORDIZIA

Levi's


DENDA ESPEZIALDUA



S. Inazio, 1

Telefona: 88 94 09

BEASAIN



ondoeta

HALTZAIRUZKO ATEAK:
AUTOMATIKOAK,
BASKULANTEAK,
MARATILDUNAK,
STANDARRAK,
ETA ABAR.

Nagusia, z/g. Telef. 883102. Faxe: 880872. 20249

ITSASONDO

HAMAZAZPI TXAPELKETA, HAINBAT KOPA ETA TXAPEL ESKURATUTAKO

Idiazabalgo Pilota Eskola

Idiatzabalgo Pilota Eskolaren azalpena egiteko beharrezkoa da historia apur bat egitea. Jakina, pilotalekua-ekin lotuta dago eta Idiazabalgo Igarondo pilotalekua 1981.go ekainaren 14an inauguratu zen eta ondorenean pilota komisioa sortu eta hauek ziren bere lehenengo egitekoak: Pilotalekurako erreglamendu edo araudi bat egin, pilotalekuko erreserba orduak antolatu eta haur eta gazteekin hasi.

Hasieran gazteek ez ezik, helduagoeke ere, denak jolastu nahi zuten eta badira Idiazabalen lehenengo hilabete-tan jolasteko ordurik gabe gelditutakoak.

Araudia egin zen eta berotasuna pasa zenean, orduak zozketatzeari utzi zitzaion eta pilota batzordea ere lagun bakar batzuetara jeitsi zen. Bakar hauek laguntzaile batzu aurkitu zituzten eta horrela talde bat osatuz jarraitu dute gaur arte.

"Pilotak erosi eta gazteekin jolasten hasi, 1. herriko pilota txapelketa antolatu... Aurtengo San Blas jaietan 11. pilota txapelketa amaitu genuen. Orain udaberriko banakako 6. txapelketa jolasten ari gara, San Adriango erromeri egunez bukatuko duguna". 17. txapelketa, hainbat kopa eta txapel eskuratu dituzte eta hainbat aldiz eskean,... beti laguntzaile berdintsuei.

"Gazteekin hasi ginen kanpora ateratzen, eta hiru partidu jolastu, hiruretan pasara ederra jaso eta etxera! Baina gure gazteek gogor saiatzen ziren eta laister jarri ziren besteetan mailan, hasi ziren azken partiduetara iristen eta baita txapelak ekartzen ere. Gure mutilok txapelak jaso dituzte, bai Beasain, Ordizia, Lazkao, Ormaiztegi, Antzuola, Eskoriatza, Aretxabaleta, Arrasate, Elgeta, Alegia, Tolosa, Hernani, Zarautz, Aia, Altza, Irun eta ahaztuko garen beste herriren batean ere bai", diote pilota-eskolako arduradunek.

"Gainera, Hernanin, Altzan eta Elgetan pilota eskola onenari emaniko saria jaso genuen. Herrietako txapelketaz aparte, probintzi mailan, Gipuzkoako finalerara iristen hasi ginen. 83.ean, Xabier Kollado eta Xabier Goiburu txapel-



"Interpueblos" Txapelketako pelotariak, entrenatzailea eta Pilota Eskolako batzuek.

FOTOETXE

peldun ordeak gelditu ziren alebinetan; bi urtetara, 85.ean, Iñaki Goiburu txapel-dun orde benjaminetan, Xabier Kollado eta Xabier Goiburu txapeldunak infantiletan eta Juanjo Mujika txapeldun orde prebeniletan. 86.ean Juanjo Mujika eta Xabier Gelbenzu txapeldunak jubeniletan, Josu Telleria eta Igor Mintegi txapeldunak benjaminetan eta Iñaki Goiburu txapeldun alebinetan.

87.ean Iñaki Goiburu txapeldun alebinetan eta Gregorio Zabaleta eta Xabier Goiburu txapeldun prebeniletan. Juanjo Mujika banakako txapelduna jubeniletan. 88.ean Juanjo Mujika eta Jose Luis Mintegi txapeldun ordeak afizionatueta. 89.ean Xabier Goiburu eta J.L. Mintegi txapeldun ordeak bat jubeniletan eta bestea afizionatueta eta Iñaki Goiburu txapeldun infantiletan".

Gipuzkoako ordezkari bezala jolasteko askotan izan dira deituak "Izal"go pelotariak. Iñaki Goiburuk GRAVN edo Euskadi mailako txapelketa irabazia du eta Juanjo Mujikak ere Espainiako Open-a irabazia du eta Parisen munduko txapeldun or-

dea gelditu zen.

Baina talde bezala eta herri bezala, Herriarteko txapelketa, "Interpueblos" deritzona bi urtetan segidan (89-90) irabaztean iritsi ziren gailurrik altueneraino pilotari horiek.

Inor bereziki aipatzekotan pilota eskolaren entrenatzailea izan den Joxe Mujika aipatu behar, bera egon baita hamar urte hauetan "pilotalekutik irten gabe".

"Hazia berdin erein arren, urte guztietan ez dira emaitza berdinak izaten, lehen oso pelotari onak segidan izan baditugu ere, hutsune batzuen ondoren hasi dira azaltzen berriz ere ume egokiak, eta Pilota Eskolak aurrera jarraituko du gure kirolean haurtxo hauek lantzen, berentzat eta herriarentzat egun haundi eta pozgarriak lortu ditzaten", diote, bukatzeko, Idiazabalgo Pilota Eskolakoek. Hala bedi.

OSASUN

**Belar eta dietetika denda
Naturopata**

eska ezazu eguna eta ordua

Goierri, 10 - Tfnoa: 88 61 14 - ORDIZIA



Elena Garmendia
ordiziarra japoniarrekin

Elena Garmendia 21 urteko ordiziarrek, EEBB-etako Unibertsitate batean nazio-arteko harremanak ikasi ondoren, Asia espezializazioko 3. kurtsoa egiten du hainbeste miresten duen Japonian. 7 hilabete egin, itzuli hona eta berriro bueltatu da hara uda-arte

Japoniera EEBB-etan hasi zen ikasten eta nahiz zaila izan euskaldunok erraztasun gehitxo omen daukagu horretarako (gure azentoa eta japonierarena berdintsuak omen) eta gramatika menperatu ez arren, ondo ahoskatzen zuenez, nota onak ateratzen zituen aidanez. Orain, dexente hitzegiten du. Japonieraz idaztea oso zaila da.

Euskaldunekin ere egin du topo, jesuitak eta monjak. Ezeizabarrena apaiz tolosarrak ederki asko hitzegiten bide du oraindik euskaraz, bertan 35 urte eraman arren. Japoniarrek ba omen dute euskararen berri eta gure hizkuntza ere ikasten omen da.

Unibertsitateko apartamentu batetan bizi da Elena, 12 m2 besterik ez duena, komuna eta sukaldea barne, baina ez da keizaten. Honetaz aparte beste gauza pilo bat kontatu zigun Goierriko neska xarmant eta berritsu honek: Japoniako modernitatea eta tradizioen arteko nahasketa, Kimonoen moda urtero-urtero aldatzen dela, ongi-etorria onekoak direla atzeritarrekin, produktuen azalpena egiteko artea, Tokioko Roppongi auzoan dagoen martxa, txikiteo antzeko bat ere egiten dela puberik-pub, hizkuntzak ikasten dituztela telebistatik, 15 milioiko tirada duen egunkariarena, hoteletan eta publizitatean lana egin duela, emakumeen errolda tradizionala, hizkuntzen maila jerarkikoak...

Baina nonbaitetik mozten hasi behar. Bukatzeko: Turismoan joateko garestia da, baina ingleseko informazioarekin eta jendearen laguntzarekin posible da jantoki eta hotel merkeak aurkitzea. Irakurle horietakoren batek Japoniara joateko asmorik balu, Idatzi Elenari Uztaila bukatu aurretik: Elena Garmendia. 3-10-18 Heiwadai 208. Nerima-Ku, Tokio T 179.



Andoni Aizpuru
gabiriari idazlea

Andoni Aizpuru Gabino Murua "Estanda" idazlearen biloba du. 26 urte ditu Andonik eta gaur egun Errenteriako Udal-Euskaltegian euskarako irakasle bezala ari da lanean. Horrez gain, "D.V."ko "Gure Artean" sailean idazten du igandetan eta egunkari horretako "Zabalik"-en ere idatzi ohi ditu erreportaiak.

1985ean, Elizbarrutiaren O.H.O.ko irakasle Unibertsitate eskolan Natur Zientziak sailean espezialdu zen. Bertan Tesina egiteko gustoko gaia zuela eta Artzantzari heldu eta Fermin Leizaolaren zuzendaritzapean burutu zuen. Orduan bildutako datuez baliatuz, sakonagotik aztertu gaia eta "I. Gerriko Idazlan-Sariketa"ko 2. saria lortu zuen "Urbia-Oltzeko Artzantza", lanarekin.



Pello Ramirez,
ordiziar musikaria

Ume askori gertatzen zaion bezala, oharkabea eta irriki berezirik gabe sartu zen musika munduan Pello Ramirez ordiziar gaztea, eta oraindik horretan dirau. Bertatik bizitzeko adina ematen dio musikak, gainera. Hasi, akordeoiarekin hasi bazen ere, ez da horretan gelditu Ramirez en afana, izan ere

orain biolontxelo ikasten ari baita. "Beste hainbat instrumentu ere lardaskatzen ditut, flauta eta pianoa esaterako", gehitu zion Bakarne Irastorzarri.

Biolontxelo ikasle eta akordeoilari izateaz gain, Ordiziako Musika Eskolako irakaslea ere bada ordiziar hau. Solfeoa eta biolontxelo ikasten ditu bertan. Baina ez da horretara mugatzen bere zeregina, izan ere denbora asko ez dela "Ganbara" folk taldeko partaide ere bai bait da.

Ertzantzaren Bandak Ordiziako eskolaurrentzat errezital bat eskaintzeko proposamena bertako Musika Eskolatik irten zela eta makina bat istilu sortu zen herri horretan. Ramirezek esan zigunez, Eskola horren irudia kaltetuen atera bazen ere, bertan ez da sekula izan inolako alderdikierarik edota joera politiko berezirik.

Euskaldun peto honek aitortu zuenez, behin baino gehiagotan pasa zaio musikaren mundua uztea, "baina ondo pentsatuta, ezinezkoa iruditzen zait hori gertatzea. Azken batean, musikak eragin handia du norberarengan eta konturatzen zara zure izateko era ere markatzen duela. Musika norberaren tubo- eskapea izango litzateke. Musikarekin ez zaude bakarrik".



Nekane Arratibel,
lazkaotar irakaslea

68-iv-12 jaio zen Nekane eta 91.eko ekainean Donostiako Filosofi eta Hezkuntz Zientzien Fakultatean amaitu zuen Psikologiako karrera.

Gaur egun Lazkaoko Maizpide Euskaltegian euskarako eskolak ematen eta Doktoradutza ikasten dihardu. "Etnografiako ikerlan bat" izenpekoarekin atera berri du "II Gerriko Ikerlan Sariketa"ren bigarrena. HABEko ikerketa batean ("Helduen berreuskalduntzeaz psikosoziolinguistika") kolaboratzaile da. "Euskara eta motibazioa"z ikerketa lan bat burutzeko diru-laguntza eskatuz proiektu bat aurkeztu eta onartu berri diote.

BERTSOLARI ESKOLA ETA GIPUZKOAKO IKASTOLEN ARTEKO KOORDINATZAILEA DA ITSASONDOARRA

Mikel Mendizabal: "Ez naiz ateraldi handi eta xelebreetako bertsolaria"

Mikel Mendizabal Itsasondon jaio eta bizi den bertsolaria dugu. Bere lan garrantzitsuena, Aldundiaren babesean, eskola bakoitzean irakasleren bat prestatu eta horri materialeak eskuratzea da. Halere, ez gara horretaz aritu honakoan, bere hasierataz eta orokorki bertsolaritzaren egoeraz baizik.



Hamalau bat urte zituen Mikelek etxean topatu zuenean bertso txapelketako bateko liburu bat. Uztapide, Xalbador, Baserri, e.a.-i gaiak jartzen zitzaizkien. "Neri gauza kuriosoa iruditu zitzaidan eta neronek ere intentuak egiten nituen, haiek esaten zutenaren antzekoa eginez". Goierrin garai hartan gazteentzako txapelketa batzuk jokatzen ziren (Ordizian, Itsasondon, Gabirian, Idiazabalena) eta, zortez, bertsolari ingurukoak, ezagunak, lagunak tokatu zitzaizkion. Horrek eragina izan zuen bertsozaleasuna sortzerakoan bere barnean. "Gero hasi ginen piska bat igandetan kuadrila mailan bertsoak kantatzen, eta hurrengo pausoa izan zen txapelketa horietara aurkezte".

Publiko baten aurrean lehen aldiz Matximenta herrian kantatu zuen, Zerberio, Begiristain eta Muruarekin batera. Datu bitxi bezala, gai-jartzaile Sebastian Lizaso zegoela. "Lehen ateraldi hartaz ez dut oso inpresio onik. Oso urduri nengoen, ez nekien jendearen aurrean egoten, abesten ere behar bezala ez, arnasa hartzen ere ez. Beharbada esango nuke piska bat prezipitatu nintzela, baina egia esan lehen pauso hori emateko gogo handia nuen.

Berak adierazi digunez ez da ateraldi handi eta xelebretako bertsolaria.

Bere estiloa izango litzateke bertsoak sakondu edo arrazoiak bilatzekoa. "Nere estiloa ez dut uste bertsolari txispadun horietakoa denik, Lazkao Txiki edo Peña diren bezalakoa". Saiatzen da eta gustatuko litzaioke txispa hori edukitzea, baina konprobatuta dauka bakoitzak bere estiloa duela eta estilo horretan jarraitu behar duela, sakonduz.

Gipuzkoako Bertsolarien azken Txapelketan finalera iritsi eta 8. geratu zen. Mikelek konparazio bat egiten du E.H.-ko aurreko txapelketekin eta aurtun zerbait falta zitzaioela azaldu digu, "ez nintzen orduan bezain ondo konzentratu, motibatu ere ez beharbada". Honekin batera prestakuntza oso berandu hasi zuela eta aurtengo honetan ez dela gustora sentitu adierazi du. Hori zergatik izan litekeen ez daki, "askotan norberak ere ez daki zergaitik izan litekeen, boladak izaten ditu pertsonak eta".

Gipuzkoako azken Txapelketan Sarasuak egin zuenari buruz luze hitzegin dute Bertsolari Elkartekoek. Mikelek bazekien Sarasuak hori egin behar zuela, berak komentatu bait zion hasieran. "Nik bertsolari, bezala, lagun bezala eta Bertsolari Elkartea horren partaide bezala onartzen diot oso ondo Sarasuari. Berak egin nahi izan duen protesta hori ulertzekoa dela us-

te dut". Gure bertsolariari iruditzen zaio protesta horrek ondorio onik ekarriko duela. Uste du entzule-jendea Belodromora saio on bat entzuteko asmoarekin dihoala, eta horrelako ekintza bat badirudi "tongo" kutsuko ekintza bezala hartzen dela.

Jaialdietan betiko bertsolariak dabilzala esan orduko hori aspaldiko eztabaida dela dio. "Beti betiko bertsolariak dabilzta. Horiek dira nolabait finalera iristen direnak edo behintzat txapelketatan destakatzen dutenak. Horren aurka Bertsolari Elkartea egin izan du saiakera bat. Antolatzaileei deitu zitzaion, esanez jaialdi bat antolatzerakoan beti punta puntako bertsolariak eraman beharrean, tartean hainbeste izen ez duten bertsolariak kontutan hartzeko. Gero egin dira beste ekintza batzuk, Donostiako auzoetan bertsolariak jartzea, e.a. Baina azkenean konklusio batetara iristen zara: antolatzaileek jaialdi bat antolatu nahi dutenean, urtean behin antolatzen dutenez, jaialdirik handiena, kartelik onena, izen sonatuenak nahi dituzte, jende gehiena erakartzeko. Orduan denok horrela jokatzen dugu eta beti zulo berberean erortzen gara".

Telebistak eragin handia duela eta, jaialdietan asko ateratzeak aukera gehiago ematen dizkio bertsolariari

telebistan agertzeko, eta alderantziz. Hori gurrpil bat da. "Bertsolari Elkarte-k kide bati entzun diot, beharbada, soluzioa izan daitekeela bertsolariak ere prezio ezberdinak kobratzea, pelotariak bezala, eta horren arabera bakoitzak ikusiko du zenbat ematen duen. Hala ere nik oso konplexua ikusten dut".

Bertsolari Elkartearen barneko beste betiko kontu bat bertsolari gazteen egoera da. Txapelketetan bakarrik dabilta. "Txapelketa ona da tranpolin bezala ezagutza emateko eta jende artean azaltzeko. Dena den, ez zaizkie behar hainbat aukera ematen."

*"Bertsolari bezala
eta bere lagun
bezala onartzen
dut Sarasuaren
ekintza".*

Hori ebitatzeko beste marko batzuk bilatzen ari direla komentatu du.

Bertsolaritza oso egoera onean dagoela esan du Mikelek. "Bertsolari asko daude, inoiz ez da izan honenbes-

te bertsolari halako maila onekoak". Egia esan ulertzekoa da gaur egun eskoletan bertsolaritza piska bat lantzen dutelako.

Garai bateko bertsolaritza eta oraingo diferentia direla aitortu du Mendizabalek. "Dudarik ez dago gizarteak eboluzio bat daramala eta bertsolaritza ere eboluzio horretan sartu behar dela. Gazte jendea heltzen ari da, beste pentsamendu batekoa eta orduan bertsolaritzak horri erantzun behar dio. Bertsolaritza tabernako eta sagardotegiko ekintza izatetik, gaur egun gizarte asko zabaldu da".

Rosa Amundarain

Zer nahi hura:

PINTXOTAN: denetik
OGITARTEKOAK
BAZKARI eta
AFARIAK



Kawasaki YAMAHA

SUZUKI HONDA

ZUREMOTO, C.B.

Poligono Hiribarren, Atze 1
20210 LAZKAO (Gipuzkoa)

Teléf. (943) 88 39 03

LOINAZ Taberna — Jatetxea
BAZKARI ETA AFARIAK

K/ Nagusia, 27 — Tlf. 88 20 07 — BEASAIN



**Kirol jantzieta
espezialistak**



Domingo Unanue Enparantza 5
Telf.: 88 85 18

20240 ORDIZIA (Gipuzkoa)

TOKI-ALAI JATETXEA

Bataio-jaunartze bazkariak, afariak, ...
Tfnoa: 88 89 53 ARAMA



Jatetxea



Gudarien Etorbidea - Tel. 88 39 60
20240 ORDIZIA (Gipuzkoa)



SEGURO TALDEA
ZURICH-VITA-HISPANIA

GURUTZ BARANDIARAN IRASTORZA

ESTEBAN LASA, 7-1⁰C Tfnoa: 88 88 92
20200 Beasain (Gipuzkoa) Faxa: 88 88 92

ORMAIZTEGIK OMENALDI MUSIKARI-IRAKASLE ETA GIZON IAIOARI

Paskual Larrañaga: Musika bizitzeko, bizitza musikarentzat

Paskual Larrañaga ormaiztegiar musikariari ongi merezitako eskerrak emango zaizkio datorren maiatzaren 24-ean, jaioterrian. Bere musikarekiko grina eta Ormaiztegiko belarrien gozorako egin dituen ihardunak, zalantzarik gabe, izan dute balorazio onik.

Paskualek gaur egunean, 67 udaberri ezagutu ditu; hiru bider aitona egina da bere hiru seme-alabei esker eta 37 urte egin ditu bere emazte Madalenaren ondoan. Iadanik jubilatua da eta, inoiz baino denbora gehiago ematen du bere musika tresnen artean. Urrun geratu ziren txistuaren hots deskontrolatuengaitik amak eginiko armoniak. Hala ere, gogo berdinak erakutsi izan zituen orduan eta erakusten jarraitzen ditu bere helburu garrantzitsuena izan den musikarekiko.

Maiatzak 24 honetan, batik bat txistuaren inguruan egin duen lanagatik egingo zaio omenaldia, nahiz eta, beste hainbat musika tresna manejatutako ohi dituen. Txistua izan da ikasi zuen azken instrumentua, hain zuzen, 20 urterekin.

Ikasia eta irakatsia

Honen zergatia, eliza-udaletxea-balsak, osatzen zuen trinomioak bultzatua izan omen zen; plazako neurriak txikitu egiten omen ziren nonbait akordeoi soinuarekin. Orduan, herriko agintariekin txistua ikasi zezan animatu zioten, horrela Beasainen, "Txanbu"ren eskutik hasi zen instrumentu berrien ezagutzan.

Lanetik atera orduko, bizikleta hartu

eta Beasain aldera gerturatzeko piano eta organo ikasketak burutzera. Zumalakarregi-ren etxeko (orain Museoa deneko) gela batetik Ormaiztegi erdia (bai eta goierritar ugari) pasa dela esan dezakegu solfeo eta txistua ikasketako asmoz, Paskualen eskutik. **Mende erdia osatu du organista lanetan herriko parrokiari, baita Goierri inguru guztiko herri plaza gehienetan festak txistu hotsez blaitu.**

Herri mailan berriz, hainbat aktibitateen dinamikarako garrantzitsua izan da: gabon kantaldietako soinu-jole, errege kabalgotako martxaren txistulari, herri koral zenaren abeslari eta zuzendari (koraleko bakar batzuk batzuetan oraindik biltzen dira), askok jakin ez edo iadanik ahaztua izango duten antzerki taldeko partaide ere, eta beste zenbaitetaz gogoratzen ez garenak... Azken alor honetan ba omen zuen aparteko graziaz eta ez teatroan bakarrik, zeren gure Paskualek, beti izan du umore onaren islada eta ateraldiak osatzeko abildade partikularra.

Bere ezpainetatik hamaikatxo kontu



alai entzun ditugu, bere txistulari-munduan gertatuak. Askotan errepikatzen duen pasarte, etxez-etxe alborada jotzen aritzen ziren egunekoak da. Hainbat bizilekutan jo ondoren eta orduko esku zabaltasuna zela zertxobait muturra berotuta, gurgilean danbolin makila trabatuta bizikletatik muturrez lurrera erori zen; nolabait Estankoraino gerturatu eta txistuak -fit, fit,- bakarrik egiten omen zion; istripuan instrumentuaren pita okertu nonbait... Burumakur, dena bertan behera utzi eta etxeratu omen ziren. Horrelako istorioak bere ahotik entzuteak pena merezi du.

Esan genezake Ormaiztegiko herriak zor diola bere omenetan montatzen ari den festa hau, zeren Paskualek eduki dezaken penatxo bat, egun honez gain, berak egin duen lanaren jarraipen eza litzateke. Nolabait esateko, gure herriak musikaz zentzu piska bat eduki zezan lan astun horretan, askotan bakarrik sentitu delako. Helburu horretan, herriar guztiok dugu erantzunkizuna; benetan, asko damutuko ginatke igandeko dianaren oiartzuna gure kaleetatik ezabatuko balitz.

Zorionak Paxkual... eta eskerrik asko!



Jon Aldanondo Albisu.

Irripar egizu arren (II)

Gaurko egunean, zoritxarrez edo onez nolakoak ziren ikusiaz, ohitura asko galdu ditugu. Hauetako bat, herriko patroia ren egunean, meza nagusira joatekoa izan ohi zan. Gaur ere, asko joaten badira, gazte jendea ez adinbeste, edo eliza utzi dutelako, edo bezperan parranda haundia egin dutelako eta pestari jarraitzeko ordu horietan lo egitea ederki etortzen dalako.

Bazan Zegaman Praixku izeneko

ikazkin bat, urte osoa mendian egiten zuena hiru egun ezik: Eguberri eguna, Pazko eguna ta Sanbartolomeak. Horrela, San Bartolome eguna zala-ta jeitsi zan Praixku Zegamara. Bizartegira joan, bizarra ta illea moztu, txukun-txukun jantzi eta hor dijoa hamarretako meza nagusia entzutera bere betiko lekutik: koru azpitik.

Egun hartan, sermoilaria ere bikaina omen zan programak zioenez: "el panegirico del santo correra a cargo del preclaro orador sagrado XX..."


Korua ere bapo aritu zan Refice-ren meza latinez abesten ta sermoilaria hasi zanean —hamar t'erditan—, eliza gañezka ixil-ixilik. Egun horretan

sermoilariak bikario etxean banketea zeukan ta janaria irabaztea pentsatu ere bai. San Bartolome gora ta San Bartolome beheara, hogei minutu pasa hitz jarioan ta bukatzeko tankerarik ere ez. "Nun paratuko degu gure Bartolome Deuna? nun jarriko degu gure santu paregabe hau...?", zion sermoilariak.

Praixku ia asper-asper zegoen kontu haiekin. Altxa da ta sermoilariari: "Neretzat dagoen tokian oso ondo doo, baño erabakitzen dezun bitartean nik lekua utziko diot ni Kontzejura noa hamaiketako egitera-ta". Hala alde egin omen zuen Praixkuk.

"Txurrupe" (Donostia)

Zinea eta bideoa



"La Hoguera de las vanidades"

Autorea: Tom Wolfe. **Zuz.:** Brian de Palma. **Akt.:** Tom Hanks, Melanie Griffith, Bruce Willis.

Tom Wolfek errealismo periodistikoz idatzitako liburu ospetsuaren aldean ase ez bagintuen ere, pantailarako adaptazioa irrikaz itxaron genuen eta, egia esan, aspaldi ikusi bage-nuen ere (estreina-berritan), bideo formatoan dagoenez orain, bada, ez ezazula gal.

Istoria konplexua da: Niuyorkeko broker batek eta bere amoranteak arrazarteko konfliktu batean nahasturik aurkitzen dituzte euren buruak. Sherman McCoy broker gazte eta dirutan ustelduak, arrakasta eta harrokeriaren atzetik dabilen Amerikaren irudia ematen du. EEBBeko Reagan-garaiko "yuppie" bat da, eskrupulu-gabea, eta merezitako zigorra jasoko du.

Bitxiak dira, istorioari hasiera damaion eskandaluaz idazten duen kazetariarenak, beltzen elizetako artzaienak, e.a. Hasi eta bukatu, begirik kendu gabe ikusiko duzun filma.



Robin Hood (Lapurren Printzea)

Zuz.: Kevin Reynolds. **Akt.:** Kevin Costner, Morgan Freeman, Alan Rickman, Christian Slater, e.a.

"Otsoekin Dantzan" ("Bailando con Lobos")-en ondoren, Kevin Costnerren azaltze berri honek, bada, estatubatuar aktore honen fama eta karisma mundu guztiko publikoen aurrean puntan jartzea lortu du, dirutza galantak irabazteaz gain.

Basoetako Robinen mitoa, bere dizdira guztian, da agertzen diguna zintak, berezko ideia gehiegi atxekitzen ez bada ere. "Garai bat bazen, justizia egiteko era bakarra, legez kanpo ibiltzea zena", dio pelikularen karatulak. Abentura- zale eta garaiko giro, eszenografia eta jantziteria autentikoak ikusi nahi badituzue, badakizue.

Zinikoak

Agenda Ezkutua

Zuz.: Ken Loach. **Akt.:** Frances McDormand, Brian Cox, Mai Zetterling.

Pelikula interesgarria Ken Loach-en eskutik datorkigun hau. Bertan, Giza Eskubideen defendatzaile den abokatu baten hilketaren inguruko ikerketak ezkutatzeko Gobernu britaniarrak egiten dituen ahaleginak azaltzen dira.

Gertaera Beal Feirste-n (Belfast, gaelikoz) kokatzen da, zehazkiago esateko hiriko zentruko hotel dotoreetan, mendebal Beal Feirste auzo katolikoan eta bertako kuartel erraldoietan. Hala ere, Ipar Irlandan bezalaxe Euskal Herrian kokatua egon zitekeen.

Estaduak "bere" legea betetzeko boterea erabiltzearen aurka garbi borrakatu eta gerra zikinaren muinak aztertzen dira istorio sinesgarri batetan, polizia onak esistitzen direla sines baldin badaiteke. Kontakizunak bi zati ditu, lehen zatia suertatzen da errealea eta interesgarriena; bigarrenak berriz, egiantza gutxiago du, nahiko artifiziala.

Filmearen akatsa, hotel, kuartel, despatxu dotore eta antzeko leku "distingitueta" mugitzeaz gain, kargu altu eta gailoi askotako poliziek dutela lehentasuna eta ez mendebal Beal Feirsteko kale eta jendeak edo bertako errealtate gordinak.

Alde intersgarriena berriz, zinegintza espresabide bezala berreskuratzen dela eta Gobernu britaniarrak zentsuratu duenerako berriz, egia guziek bezala mina egiten duen seinalea.

Saoirse (Askatasuna, gaelikoz)





"Non dago Stalin?", Xabier Montoia, "Susa", 1991.

Xabier Montoiak —"M-ak"—eko musikoa izateagatik ezagunagoa, aurretik argitaratutako bere hiru poema-liburu eta gero, narrazio liburua plazaratu zuen iaz. Montoiaren lehen poema-liburua "Anfetamina" izan zen. Bide berriak ireki zizkion euskal poesigintzari. Buruz dakizkigu lehen liburu hartako eta geroko poema eta kantuak...

Oraingoan berriz, Euskal Herrian eta 80. hamarkadan kokatutako fikziozko kronika moduko bat kontatu digu. Istoria ez da batere konplikatu: "Stalin", desagertu den mutil bihotedun bat da. Bere lagunak, eta batez ere bere neskalaguna, Stalinen bila ateratzen dira.

Hortik aurrera, droga, sexua eta rockanrola: "Goroto" rock gogorreko taldekoak; kazetari emakume (ninfomana) bat, polizia baten amorantea dena; horren senarra, "damutu" bat, zinegotzi poli-milia; polizia bat, txibato pilo bat mantentzen duena, sadikoa; ertzaintzarentzat lan zikinak egiten dituen jeltzalea, masokista...

Denak nahastuko ditu Montoiak maisuki, gurrpil zoro batean.

Azkenaldian sortu den nobelarik katxondoe-na dela, dela komiki kutre bat, belaunaldi baten kronika-nahia izan dela, barrabiletan emaniko ostikada dela. Denetatik esan izan da da-goeneko Xabier Montoiaren liburuz.

"Non dago Stalin?", harrapaladan hasi eta bukatzen den horietako nobela bat dela esan behar. Ezagun da egileak hain ongi ezagutzen dituen kaleko istorioak jarri dituela bertan (RRV-taldearen artekoak, droga-mundu horiek...) eta lortu du euskaldunberri zein zahar-rrak (AEK eta euskaltegi-tako jende ugari) irakurketan gustora jardutea.

"Euskal Kanta Sorta", 105 orr., 20 libera. Lazkao, 84-85 ikasturtea, Goiherriko Euskal Eskola.

Bere garaian izango zuen agian kritikarik, aipamena, erresenarik. Guk ez genuen ezagu-

tuko harik eta Iparraldeko "Zabal" liburudendan aurkitu arte. Berandu samar izanik ere, "Goierritarren Liburutegia"ren apaletan edukitzeko modukoa denez, bada, hona ekarri dugu oraingoan.

Norbaitek lana ongi egin zuen honetan ere 84-85 ikasturtean, Lazkao. Goiherriko Euskal Eskolari zor zaio, beste gauza asko bezala. 105 orri eta 241 kanta, ez da txantxa Euskadiko jartxa.

Bilduma honetan, Agur jaunak-etik hasita, segi Euzko Abendaren ereserkiarekin, Guazen mendirik mendi, Euzko Gudariak, Ara nun diran, Iparragirreraren ezagunenak, Sorozabalenak, Nere Etxea, Agur Zuberoa, Ator, Ator, Ixill-ixillik dago, Sta. Agata, Baratzako pikuk, Hiltzaile bat bezala, Tiki-ttikitik, Ez, ez dut nahi, Herribehera, Mendian larrartean, Zenbat gara, Gure bide galduak, Txori txikia, Haurbati, Oi Pello Pello, Egun da Santi Maniña, Baztan, San Simon eta San Juda, Giza-aberea, Nafarroa-Aragoa, Seaska Kanta, Kontrapas, Ni naiz, Nik nahi dudana, Ez gaude konforme, "Ez dok amairu"koenak, Ipar eta Hegoko euskal kanta ezagunak dituzu bertan, ezin aipa denak...

241 kanta guztira, erraza da esaten. Kantu eternalok entzuten nostalgia puntua ere sartzen zaio bati. Nahiz eta kasu askotan 20-25 urtez azpiko poema, kanta eta bertso kantatuak ditugun, klasikoak dirudite jadanik.

Tirada handia eduki izan behar zuen Euskal Kanta-sorta honek, "Zabaltzen"ek banaturik omen dauka eta "stock"ean ale ugari geratu arren, agortu aurretik eskura dezazuela gomendatzen dizuegu.

Kexexo

Amodioaren formak

"Haltzak badu bihotzik". Iñaki Mendiguren. Elkar.

Ez al zaizu inoiz gertatu? Historia klasean zaude, eta irakasleak hara non esaten dizun testu liburua pikutara bidaltzeko eta horren ordez nobelak irakurtzeko: "Tira, tira, baztertu parrafada zoro horiek eta hartu Baroja, Unamuno, Irigoien bera, edota Gala, Maalouf..."

Amodioaren itsasoa ere gauza bera esan genezake: H. Fromm-en "El arte de amar" bezalako teoria lanak zokoratzeak eta hasteko G. Garcia Marquez-en "El Amor en los tiempos del colera" edo Iñaki Mendiguren ezkiotarraren "Haltzak badu bihotzik" bezalako nobelak irakurtzen.

Hala ere, ez dut ukatuko: Iñaki Mendiguren nobelarekin ari nintzela, zenbaitetan maitasunari buruzko eskuliburu bat irakurtzen ari nintzelako irudipena izan dut. Erreflexioak, nahita ala nahi gabe, ugari dira obra honetan:

"Orain ikasia dut maitasun-harremanak ere, neurri handi batean, botere-erlazio direla, norgehiagoka hutsa, nork bere nortasuna finkatzeko ingurukoak menperatu behar izaten dituela, hurkoa norberari begira jarri, zuzen edo zeharka, gure balioa aitortu diezagun. Erakartzeko gauza garen neurrian, bagara zerbait munda. Orain badakizkit gauza hauek, eta askoz eszeptikoagoa naiz, baina orduan..."

Orduan nobelaren narratzaileak (literatur irakaslea, gizonezkoa), bere makalalditik, bere naufragiotik ateratzeko gai zen sirena aurkitu zuen (bere ikaslea zen 17 urteko mutila). Aka-

so ohartuko zinen nahita aipatu dudala gizonezkoa/mutila binomioa, idazleari ausardia eskatzen diona eta, zeinaren bidez, guri ezezaguna eta ezkutuaren ezagupideak eskaintzen bait zaizkigu.

Esan beharra dago, halaber, irakaslea 68-ko maiatzaren semea dela, eta bere idealismoa omnipresentea dela: deskribapen idealizatuak, metafora klasikoak, konpromezua bera... Ikasleak, berriz, nahiko lan dauka bere burua bilatzen eta zehazten, bere bihotzaren sentimendu zaparradan guardasola zabaltzen.

Tirabirak etengabeak dira: lilura edo maitasuna, obsesio eta menpekotasuna bilakatzen dira, jelsiak bere ohizko agerpen mingarriak egiten ditu; mendekua ere ez da falta... Eta maitasunaren tentsio horretan, irakurleari etengabe sortzen zaio aurrera egiteko gogo, harik eta heriotzarekin batera liburua amaierarekin topatu arte. Heriotza izango bait da historiari azkena eta bizitzari zentzu berri bat eman-giona.

Amaitzeko, nobela intimista, sakona eta sentisuala dela esango nuke, barrutik egina, eta batez ere horretan dela konprometitua.

Patxi Zubizarreta.



"Gabrielle". Patxi Zubizarreta. Erein. 119 orr.

A ze alde-a Patxi Zubizarretan aserako nobela leitu ala au leitu. Egilek, besteak beste, aur-literatura asko irakurri du, eta, orri esker, estiloak arindu earra artu du. Li-

buru ontan prosa poetikoa ugari dau, ugariegi bearbada eabiltzen don gaie kontun artuta, baina liburu bakarra leitzen du irakurlek. Len nobelan —"Jesus, Maria ta Joxe" artan— irakurlek bi liburu leitzen zittun: bata, nobela bea eta bestea euskerazko iztegie. Gabriellek ez do olako esfortzuik eskatzen, esaldik e' motzagok die, ez die ain korapilotsuk. Eskertzekoa alegin oi.

Bi die liburuko protagonistak. Bata apaize, Samuel. Bestea, Gabrielle. Samuelek bado Patxiren etio zerbait. Maitasunezko kontakizune azkar pasatzen da Marapolin eta Nizan. Erlizjion gaie're ortxe dau nobela guztian barrena.

Istoria xuabe-xuabea atea zaio Zubizarretai. Liburue arin leitzen da. Bukaerea goibela ala pozgarrie dan, oir norbeak ikusi bearko do. Asera baten badirudi amaiera tristea dola, baina liburun bertan azaltzen dan bezala: "sufritzen duenak zoriona lortzen du".

Jon Zabalegi.



ANZIZAR, S. A.

Beasain-Zumarraga 46 Km.
Telefonoak (943) 88 17 00 - 88 17 00
FAX. (943) 88 48 11

111 p.k.
20200 BEASAIN

**Automobil mekanika eta elektrizitatea
Bosch-Jetronic Diesel eta Gasolina injekzioa**

- Volvo-Alfa Romeo-Toyota autoen salmenta agentzia
- Kienzle takografoen salmenta eta konponketa
- Blaupunkt auto-irradiak
- Denetik automobil-kontuetan

**JAUREGI
TOLDOAK s/n**

Telefonoak: 88 02 43 - 88 01 33

BEASAIN



IRIZAR ANAIK

GALLINA BLANCA PURIN Aren banatzaileak

Billegia
Hiribarren
Telefonoa: 88 75 00
20210 LAZKAO

Denda
Fueros 1
88 12 09
20240 ORDIZIA

VARILUX LENTE PROGRESIBOAK



**DISTANTZIA GUZTIETARAKO
IKUSMEN BIKAINA**

Irudi aldaketa bortizik gabe, tarteko marrarik gabeko lente politak eta distantzia guztietara, betaurrekoak aldatu gabe, bikain ikusteko moduko lenteak.

J. LARRAÑAGA OPTIKAn urrun eta hurbileko ongi ikusteko, betaurreko bakar bat besterik ez duzu behar.

VARILUX azken belaunaldia: Distantziarik gabeko ikusmen bikaina.

VARILUX AZKEN BELAUNALDIA
VARILUX

**Dohaineiko
begi
berrikustapena**



MULTI OPTICAS
Beti Zuri Begira

Prantzes Gerrateko gora-beherak

Prantzes gerratean gertatutako zenbait gora-behera gure herriaren gogoak gorde ditu. Nahiz eta iadanik berrehun urte pasatuak izan, nere aitari entzun nizkion, bat baino gehiagotan, hitzetik hortzera kontatu diren zenbait gertaera. Nik hemen, entzun nituen bezala jartzen ditut.

"Garai artan, Itsasondoko Oteizabal base-
rrikoak (nere aita Oteizabalko semea da) (*) Murumendi aldeko baso-zulo baten gordeta egon omen ituan, bildur asko zalako. Ala ere, garie eginda zalako, tarteka orduko etxeko jaun edo gizona, baserrira etortzen omen uan baztarrak ikustera, beti ixilik eta kontuz, prantzesak zebiltzelako.

Bañan egun batez, etxean zegola, lau prantzes zaldiz, atea jo omen zien eta zaldientzako jana eskatu. Igitaie artu eta beeko sorora jun omen ituan, eta baserritarra garie azpi- azpitik moztan asi omen uan. Ordun, lauetakoa prantzes batek kiñuka esan omen zioan goragotik mozteko, gari-

buruk nai zituala; besteak, baietz esanda gero, azpi-azpitik moztan seitu omen zian. Prantzesak berriro asarratuta, goitik mozteko.... Orduan Oteizabalkoak nahikoa egin da, amorratuta, prantzesan buru egiten zuanari, zaldiganean zala, eskuan zauken igitaie muturrera bota omen zioan, eta bere lepoa ikutuz pasa. Baita ere korrika beeko sasin beera sartu, an zaldizkoak sartzerik etzeukealako.

An egon omen uan gordeta prantzesak aldegin arte. Tarteka sasi artetik baserrira begiratzen omen zian sua eman ote zioten edo. Egun aietan erre omen zizkien San Juan eta Itsesako elizak.***

"Zabaleko itzai bat prantzesan erituak Tolosako gaixotegira eramaten ibiltzen omen uan, beartuta. Baten Legorreta aldean omen zijoan lasa-lasai idigurdian zortzi bat prantzes soldatu eritu zeramazkiala. Bañan ala zijoala, an inguruko lagun batzuen

bidez jakin du Ordizi aldean ziran prantzes soldaduak pasara ederra artu zutela eta igeska aldegin zutela. Orduan berak zera-mazkin erituak ibai baztarran aldapan bera bota omen zizkian danak, eta buelta artuta berriro Ordizialdera abiatu. Bañan bidean zetorrela, iges zijoazen prantzesakin topo egin du, eta galdetu diote nun ziran erituak. Itzaiak lasa-lasai erantzun omen zuan Tolosako gaiso etxean utzi zituala bestetan bezelaxe.

Beste baten, Gasteizko gudate ondoren, abixoa pasatu omen zan prantzes soldatu sail bat, Etxegarateko mendietan zear zeto- zela, larri eta galduta. Lazkauko Senpere alden zarratara gogorra izan omen zan. An omen zeuden zai Goierrialdeko geienak aal zuten tresnakin, sarde, aizkora, sega eta guzti. Ez omen uan prantzes bat ere bizik gelditu"

Esteban Otegi Goenaga (Balentzia)

(*) Erredakzioaren oharra: San Juango ermittako Joan Otegi, memoria handiko gizona orain dela gutxi tronbosi batek jo arte.

Gastronomia

Ondo jan eta hobeto edan... "Kattalin" erretegi-sagardotegian

"KATTALIN" erretegia Beasaingo Kate-auzoan aurkituko duzu, polikiroldegia- inguruan. Giro goxo eta beroa bertakoa. Ingurune urbanoan egonagatik, etxe horrek ez du galdu bere tradiziozko kutsua: gusto onarekin mantentzen dituzte zoru, habe eta muebleriak antigoaleko estiloan.

Garai batean inguru horretantxe ba omen zen sagardotegi bat eta, beharbada horregatik, bi urtebetez erretegi- gintza- martxan ibili eta gero, jatetxe horretako nagusiek (Juan Manuel alegitarra eta Arantxa tolosarra) erabaki- ko zuten bertan sagardo-kupel batzu ere prantatzea.

Erretegia bitan banaturik dago: jatet- xea / sagardotegia. Sagardotegia-arena beste zerbitzu bat eskaintzeagatik ire- ki dute, eta bertan, betikoa: bakailu tortilak, takoak, txuletak dituzu auke- ran. Horrez gain, halakoetan ohizkoak ez diren baserriko oilasko edota arrai- nak.

Sagardoa Astigarragako Zapi-
raindik dakarte, hemengo sagarrarekin egi-
n-koa batipat; kupelak, berriz, geroz eta
gehiago sartzen ari den haltzairu her-



doilezinaz eginak (egurraz estaliak).
Upel hauen abantaila? Urte osoan
eman dezaketela sagardoa txotxetik.
Euren tenperatura egokienari eutsi
diezaioke bai kupelen eta bai jende-
en barruek. XXI. go sagardotegia, aide
akondizionatua, "hari musikala" eta
guzti duen lehenengoa! Erretegian,
parrilarekin lan egiten dute gehienbat.
"Beti ere parrilean erretakoa autenti-
koagoa delako" diosku "Rekondo" os-
petsuan aritutako Juan Mari Garmen-
diak.

"Zaharraren" haragi eta pikilloko pi-
parretan espezialistak direla daki jen-
deak eta izen hori dauka "Kattalin"ek.
Gainontzean antxumea erreta, base-
rriko oilaskoak eta arraia: legatza, it-
saszapoa, bixigua, erredobailoa...
Postreak etxean eginikoak, klase as-
kotako tartak, patxineta, fruta- pudina,
e.a.

Sagardotegiko "pasarea" 2.000 pzta.
inguruakoa da eta kartako afariarena
3.000/3500 artekoa. Astegunetako
menua 1.000 pzta. Bertako janariak,
hemengo babarrun eta Beasaingo
Odolki Lehiaketako irabazlearen odol-
kiak urte osoan. Horrek eskaintzen du
garantia bat, nahiz eta nagusiaren us-
tez, horrek ez duen dena esan nahi.

Nahiz eta sagardotegian egin otor-
dua, errestorantearen patxadaz ere
goza liteke sobremesan geldituz. Gero
gainera, alkoholemia-proben beldurrik
ez omen da. Guk esan gabe ere, "Kat-
talin"-gatik galdetzen baduzu, bereha-
la esango dizute: "Zer moduz ematen
duten?: ondo!"

Jon Belarra



BASAKANA
TABERNA

Giro on eta jatorra

Tif.: 88 20 23
Iturrioz Kalea, 11

BEASAIN

BODEGON GOIERRI JATETXEA

Tlf. 88 00 00
Kale Nagusia, 20 BEASAIN

Erosle Ahizpak

*Aukera osoa
Zure etxe ondoan*

Nafarroa Etorbidea, 45 BEASAIN



ELOSEGI-ARACO Ardotegiak

OLABERRIA-LAGUARDIA



MUJKA
JATETXEA

Liernia 20214 MUTILOA
Tfon 80 16 99

- * ETXEBIZITZAK SALGAI ITSASONDON
- * SALNEURRI OSO INTERESGARRIAK

OTEGI ERAIKUNTZA OROKORRAK

- * 100 ETA GEHIAGO M²
- * TXIMENETA, ANTENA PARABOLIKOA, BEROGAILU ISTALAKUNTZA EGOTIRUK. E.A.

Tfnoa: 88 49 36 ITSASONDO



SOLOZABAL
AUTOESKOLA
PERMISO GUZTIAK!

- Motorra
- Autoa
- Kamioia
- Trailerra
- Autobusa
- Erremolkea

Etxezarreta 5 (Herri antzokia parean)
Tel.: 16 12 21 — ORDIZIA

EROSKI KAFETEGIA

Pintxo hotz eta beroak
Eguneroko bazkariak

Tfnoa: 88 83 31 ORDIZIA




Sagardotegia

aulia

Aulia-enea
Teléfono: 80 60 66

LEGORRETA (Guipúzcoa)



- Urdaiazpiko eta hestekien banatzailea
 - Liburu eta konpakto denda
- Urdaneta, 52 Tfnoa.: 88 06 40 ORDIZIA

Jai-giroan elkarturik!

Egun hauetan,
alaitasuna, poza, jolasa, ilusioak...
gainezka dauzkagu.

Herriaren zati bat garenez
eta horrela sentitzen garelako,
Herriarengandik hurbil egon nahi
dugu.

Horregatik bada, egun hauetan
Jai-giroko Elkartasuna!

**Euskadiko
Kutxa**



**CAJA LABORAL POPULAR
LAN KIDE AURREZKIA**



XVIII GARREN UDAKO EUSKAL IKASTAROA (1992)

**(Goierrikoentzat
baldintza bereziak)**

MAIZPIDE euskaltegia Lazkao (Gipuzkoa)

1. UZTAILEAN

Uztailaren 6tik 24era
Izena-ematea: Maiatzaren 4etik aurrera
Mailak: Guztiak
Klase orduak: 9.30-13.00 eta 16.15-19.30

2. ABUZTUAN

Abuztuaren 3tik 21era
Izena-ematea: Maiatzaren 4etik aurrera
Mailak: Taldeen arabera
Klase-orduak: 9.30-13.-- eta 16.15-19.30

3. IRAILEAN

Irailaren 7tik Urriaren 2ra
Izena-ematea: Maiatzaren 4etik aurrera
Mailak: Taldeen arabera
Klase-orduak: 9.30-13.00 eta 16.30-18.30

**Eskatu informazio gehiago!
Ez galdu aukera!**